

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK:

Trumpek klimaren 2015eko Parisko
Hitzarmenarekin egingo duenari adi > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Cifuentesen egoerak kezka sortu
ote zuen Sabin Etxean? IÑAKI ALTUNA > 11

2017ko maiatzaren 20a | XI. urtea • 518. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

AMETS TXURRUKA BIZIKLETAREN OFIZIOTIK JAITSI DA

> 22 Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS





Zer egingo du Trumpek 2015eko klimaren hitzarmenarekin? 04

Kongoko luba etniaren erregea hil osteko gatazka gordina 08

Emakume bertsolariak, azalpenik gabe historiatik ezabatuak 12

Trusted Circles, laguntzeko prest daudenen doako aplikazioa 17

E.lkarrizketa: Amets Txurruka, txirrindularia 22

Jogurt naturala, naturalena 27

In fragangti: Katalin Antxia 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** «Spanish Inquisition»

10 **Unai Fernandez de Betoño:** Zonifikazioa, hirigintza, Zizur

11 **Iñaki Altuna:** Cifuentesen egoerak kezka sortu ote zuen Sabin Etxean?

16 **Ainara Azpiazu AXPI**

20 **Arantxa Urbe:** Erratzeak duen balioaz

21 **Laura Mintegi:** «Teachers, your are a brick in the wall»

27 **Mirari Martiarena:** Primerakoak

27 **Koldo Sagasti:** «Low cost» haragia

30 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Osasun zerbitzu publikoaren defentsa, hedabideetan



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

«Spanish Inquisition»

Katalunia erreferendumerako bidean da. Gurean Kataluniakoa tertulia, iritzi artikulu, lagunarteko taberna eztabaida eta familia afarietan maiz jorratzen den gaia da. Katalanen hurrengo pausua zein izango den, eta azkenaldian gero eta gehiago, Rajoy eta espainiar Estatuko Gobernuak nola erantzungo duten, izaten ditugu aztergai; teoria asko ari dira/gara mahairatzen. Eta egia da, katalanen helburua argia da: independentzia eskuratzea. Horretarako jorratu nahi duten bidea ere aski ezaguna da: erreferenduma eta aldebakarreko independentzia aldarrikapena, bata bestearen atzetik. Espainiar Gobernuaren helburua ere argia da: independentzia geldiarazi eta Estatuaren batasuna mantentzea. Baina hori lortzeko bidea ez dago horren argi, eta hori da nire ustez azkenaldian mota guztietako eztabaida eta teoriak sortarazi dituen. Azken finean, espainiar Gobernuak auzia behar bezala kudeatzeko gero eta zailtasun gehiago dituelako, eta izango dituelako.

Europak eta munduak begi bat Katalunian jarrita dute, eta espainiar Gobernuak jakin badaki ezin duela, iraganean ez bezala, nahi duen guztia nahi duen moduan egin. Nik ez dut uste espainiar Gobernuak armada eta tankeak Bartzelonako Rambletara bidaliko dituenik, eta, egingo balu, katalanen independentzia ziurtatu eta bultzatzea baino ez luke lortuko.

Erreferenduma ere ez du baimenduko, horrek emaitza errespetatzea ekarriko lukeelako, eta, finean, hori baita haien beldur nagusiaren iturria: katalanen nahia eta erabakia. Ondorioz, bi aukera nagusi ditu espainiar Gobernuak, eta, bi aukeron arabera, beste azpiaukera mordo bat. Aukera nagusiak honakoak dira: erreferenduma egiten utzi, nahiz eta baimenduta ez egon, edo erreferenduma eta prozesua geldiarazten saiatu. Azpiaukerak, berriz, honakoak: Kataluniako autonomia bertan behera utzi, Kataluniako Gobernuak kide zein funtzionarioak atxilotu edo gaitasungabetu, Kataluniako Parlamentua bertan behera utzi, CUP edo beste alderdi politikoren bat legez kanpo utzi, instituzioak ekonomikoki ito, Guardia Zibila beharrean mossoak erabili errepresiorako, konfrontazio zibila bilatu... Askotariko ekintzak bultzatitzake Gobernu espainiarrak datozen hilabeteotan.

Konfrontazioa, mehatxuak, erasoak areagotzen joango dira. Nahiz eta baimendu ez, erreferenduma egiten utziko du espainiar Gobernuak baldin eta aurreko erreferendumaren parte hartze, emaitza eta ezaugarriak izango dituela uste badu. Baina partidaren bi alde daude, eta katalanen ondo baino hobeto dakite bigarren erreferenduma egitekotan, legez kanpokoa izan arren, inork zalantzan jarriko ez dituen emaitza eta parte hartzea behar dituztela. Eta, zentzu horretan, gero eta gehiago dira, independentzia nahi ez duten herritarren artean ere, bozkatu nahi dutenak. Espainiar Gobernuak erreferenduma geldiarazten badu, partida luzatu egingo da, baina, nire ustez, Kataluniako gizartearen amorrua, mobilizazioa eta kohesioa indartu egingo dira, eta, ondorioz, berebiziko garrantzia hartuko du, gauzak ondo egitearekin batera, akats larririk ez egiteak, pazientziak, izango diren probokazioetan ez erortzeak.

Ez dut uste espainiar Gobernuak armada eta tankeak Bartzelonako Rambletara bidaliko dituenik, eta, egingo balu, katalanen independentzia ziurtatu eta bultzatzea baino ez luke lortuko

Gaiokiko Erresuma Batuen edo Danimarkaren jarra demokratikoak, bai Eskozian bai Faroe uharteetan eztabaida eta prozesua proiektuen ingurukoa izatea bultzatu du. Hala, botoa ematerako orduan, hori dute kontuan herritarrek, estatu independente bat sortzeak beren egoera hobetuko duen edo ez. Espainiar Estatuaren jarrera ez demokratikoak, aldiz, Kataluniako prozesuaren izaera eta bidea baldintzatzen ditu. Zentzu horretan, proiektuen gainekoa baino, esango nuke eztabaidaren parte inportante bat demokraziaren gainekoa dela; erabakitze eskubidearen ingurukoa, alegia. Eta iritzi publikoaren begietan unionismoa izaera ez demokratiko batekin lotzen denez (nahiz eta unionistetak asko erabakitze eskubidearen alde egon), independentismoak demokraziaren bataila alde handiz irabazten du. •

{ txostena } Jose Angel Oria

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK

Trumpek datorren astean jakinaraziko du zer egingo duen klimaren 2015eko Parisko Hitzarmenarekin

Donald Trumpek AEBetako presidentetzarako hauteskundeak irabaztean leku eta arlo askotan sortu zen kezka. Baita gure planeta bakarraren egoera hobetu nahiko luketen artean ere.

Klima aldaketa estatubatuarren negozioak egiteko aukerak murrizteko baino balio ez duen kontua dela esan izan du presidente berriak, eta ideia horrekin bat datozen izendapenak egin ditu. Baina oraindik ez du garbi esan zer egingo duen klimaren inguruko Parisko Hitzarmen historikoarekin (gehien kutsatzen duten bi herriek, AEBek eta Txinak, lehen aldiz onartu zuten beste herrialdeekin batera beroketa globalari aurre egiteko urratsak ematea). Eutsiko al dio kanpainan askotan agindu zenari? Eta AEBak Parisko Hitzarmenetik ateratzea erabakiko balu, zer aldatuko litzateke? Klima aldaketa gehiago larriagotuko al litzateke?

Orain sei hilabete Marokoko Marrakex hirian egin zen COP22 bileran ekologistek esan zuten Queensko magnatearen jarre-

rak gainerako herrialdeen konpromisoa indartzea eragin zuela. «Aurten bultzada ikusi dugu mundu osoan eta foro askotan. Inpultso horrek ez du atzera egiterik: gobernuek ez ezik, zientziak, negozioek eta ekintza globalak ere bultzatu dute, maila guztietan, eta gure eginbeharra da orain aurrera egitea bultzada horren gainean, denok batera, berotegi efektua eragiten duten gasak murrizteko. Dei egiten dugu konpromiso politiko handiagoa hartzera, klima aldaketaren aurkako borroka presazko lehen tasunaren artean sartzeko», Lurraren Lagunek eta Greenpeacek adierazi zuten.

Nazioarteko talde ekologistek egin zuten irakurketaren arabera, Etxe Zuriko agintariaren purrustadek bere politiken aurkako lerroak indartzea baino ez zuten lortu. Tankerako zerbait gertatzen ari da AEBetan bertan,

orrialdeotan laburbildu ditugun berriak errepasatuz gero ikus daitekeenez.

Floridako itsasertza

AEBetako presidentek Florida-ko Mar-a-Lagon duen luxuzko etxea bere Gobernuaren bigarren egoitza bihurtu du. Apirileko bigarren astean Senatuko batzorde batek hego-ekialdeko estatu hori aukeratu zuen klima aldaketak eragingo duen itsasoko uraren mailaren igoera nabarmentzeko: oso garbi esan zuten Floridako itsasertzeko zati handi bat bereganatuko duela ozeanoak, Donald Trumpen luxuzko etxea barne.

«AEBetan klima aldaketak eragingo dituen inpaktuen zerogunean gaude gaur», adierazi zien kazetariei Bill Nelson Alderdi Demokratako senatariak. «Pertsona batzuek oraindik kli-

318

Hego Dakotako oliobideak izan duen lehen isurketaren berria iritsi zaigu. Ez da izugarritzko kalteak eragiteko moduko isurketa (318 litro petrolio), baina bai Dave Archambault II.a siux buruzagiaren kezka indartzeko nahikoa.

6

Global Weather Oscillations konpainiak egin dituen aurreikuspenek diote aurtengo urakan denboraldia arriskutsua izango dela, baita azken hamabi urteotako garestiena ere, AEBetan lurra sei ekaitz bortitzek ukituko baitute.

ma aldaketa ez dela benetakoa esaten jarraitzen badute ere, Floridaren hegoaldea fenomeno hori bene-benetakoa dela dioen frogarik garbiena da. Datozen hamarkadetan arazo horri aurre egin beharrean izango gara».

NOAA AEBetako Ozeano eta Atmosferaren Administrazio Nazionalak egindako txostenen arabera, Mar-a-Lago Club eta Donald Trumpek Floridan gehien erabiltzen dituen beste jabetza batzuk itsasoko uraren maila baino beherago geratuko lirateke XXI. mendea bukatzerako, ozeanoak metro bat gora egingez gero. Dagoeneko marea bi-ziak eragindako uholdeak jasan behar izaten ditu estatuak.

NOAA erakundeak egin dituen kalkuluen arabera, AEBetan itsasertzean bizi diren bi milioi lagun gaur egun duten etxea utzi beharrean izango dira uholdeen eraginez, eta makina bat lekutan bizitzaren jarraitzea ezinezko bihurtuko du klima aldaketak.

Urakanak

Ekainaren 1ean hastekoa da aurtengo urakan garaia. Azken egunotan Garrett Black meteorologoa eta bere lankideek AEBetako makina bat puntu bisitatu dituzte, umeak, batez ere, kontzientziatzeko asmoarekin.

Zikloien azterketarako erabiltzen dituzten hegazkinak, «urakan ehiztariak», erakusten dituzte meteorologoei. Entzuleei esplikatzeko diete zer egiten duten fenomeno meteorologikoa- ren indarra eta ezaugarriak aztertze-ko eta kasu askotan ekaitza bera behin baino gehiagotan zeharkatu behar izaten dutela: «Jolas-parke bateko mendi errusiar batean sartzeari bezalakoa da».

Global Weather Oscillations konpainiak egin dituen aurreikuspenek diote aurtengo ura-

Standing Rockeko siux herriak AEBetako sektore askoren elkartasuna lortu du oliobidearen aurkako bere borrokan. Irudian, manifestari bat zaldi gainean, segurtasun indarren aurrean.

GAUR8





kan denboraldia arriskutsua izango dela, baita azken hamabi urteotako garestiena ere, AEBetan lurra sei ekaitz bortitzek ukituko baitute.

Gainera, eskema guztiak hautsi izan dituzten urakanak ere ezagutu ditugu azken urteotan, eta horiek gero eta maizago gertatuko dira datozen hamarkadetan. Princeton eta Rutgerseko unibertsitateetako eta Woods Hole Institutu Ozeanografikoko ikerlariak esan dute 2012ko urrian New York hiria bera (teorian zikloi tropikalak ez dira inoiz hain iparraldera heltzen) kaltetu zuen “Sandy” bezalako ekaitzen maiztasuna hamazazpi aldiz igoko dela.

Erregai fosilak

“Sandy” urakanak baino kalte ekonomiko larriagoak “Katrina” izenekoak eragin zituen 2005ean, baina kasu hartan ekaitzari New Orleans hiria babesten zuten dikeen egoera penagarria erantsi zitzaion, tragedia eragiteko (1.500 hildakotik gora utzi zituen “Katrina” urakanak Louisiana estatu osoan).

Trumpek, aldiz, erregai fosilekin negozio egiten jarraitzeari ez dio inongo arazorik ikusten eta askotan agindu du Barack Obama presidente ohiak bere agintaldian abian jarritako makina bat ekimen atzera botako dituela. Baina bide horretan ere Etxe Zurira iristea lortu zuen ahoberoak espero ez zituen arazoak topatu ditu. Negutegi efektua eragiten duten metano isurketak murrizteko asmoarekin presidente beltzak onartu zuen lege bat hankaz gora bota nahi zuen ondorengoak, baina Parlamentuan ezezko borobila jaso zuen orain astebate pasa. Senatari demokrata guztiek eta Alderdi Errepublikanoko hiruk Trumpek nahi zuenaren kontrako botoa eman zuten.

Andrea Delgado Earthjustice talde ekologistako ordezkariak nabarmendu zuen Trump Etxe Zurira iritsi zenetik ekologistek lortutako lehen garaipen handia izan zela: «Guztionez sekulako garaipena izan da, baina, batez ere, erregaiak ateratzen dituzten lekuetatik gertu bizi direnentzat. Baztertu nahi duen legeak osasun publikoa babesten du

eta altxor publikoak diru asko aurrezteko eragiten du».

Edonola ere, Donald Trumpek baliabide ugari ditu bere esku aurrera atera nahi dituen legeak eta proposamenak onartuak izan daitezten.

Erregai fosilen alde eta energia-iturri garbien aurka Etxe Zurikoak abian jarritako ekimenen artean, Dakota Access Pipeline izeneko oliobidea siux herriaren erreserba batean eraikitzeari argi berdea eman dio. Gaur bertan hasiko dute Standing Rock mugimenduko ordezkariak Europara antolatu duten bidaia (Euskal Herrira bertara ere etortzekoak dira, ekainaren 12an

Floridako Mar-a-Lagon duen luxuzko etxean hartu zituen orain aste batzuk Trump presidenteak Xi Jinping Txinako agintaria eta emaztea.
Jim WATSON | AFP

Marrakexeko COP22 bileran talde ekologistek egin zuten irakurketaren arabera, Etxe Zuriko agintariaren purrustadek bere politiken aurkako lerroak indartzea baino ez zuten lortu

Tankerako zerbait gertatzen ari da azken bolada honetan AEBetan bertan, orrialdeotan laburbildu ditugun berriak errepasatuz gero ikus daitekeenez

Bilbora), beren helburu eta ekimenen berri emateko.

Aldi berean, Hego Dakotako oliobideak izan duen lehen isurketaren berria iritsi zaigu. Ez da izugarritzko kalteak eragiteko moduko isurketa (318 litro petrolio), baina bai nahikoa Dave Archambault II.a siux buruzagiaren kezka indartzeko: «Inork ez zigun jaramon egin, diruak eta diruzalekeriak gidatutako pertsonak direlako».

Jakina, Energy Transfer Partners konpainiak nabarmendu du isurketa berehala menderatu zutela. Baina ez du aipatu ere egin horrelako instalazioetan gero eta isurketa gehiago eta larriagoak izaten direla, denborak eta erabilerak berak pixkanaka pieza asko hondatu egiten dituzte-eta. «Abangoardiako instalazioak direla esaten jarraitzen dute, ezinezkoa dela isurketa izatea, ezin duela ezerk gaizki atera. Baina hori beti gezur hutsa izan da», adierazi zion “The Guardian” egunkariari tribuaren abokatuak. Gainera, konpainiak berak Ohio estatuan duen gasbidean hemezortzi isurketa onartu ditu.

Ingurumen-inpaktuaren azterketa zorrotza egitea ezinbestekotzat jotzen dute Standing Rockekoek, beraientzat oso garrantzitsua izateaz gain, bertako ura kontsumitzen duten hamazazpi milioi lagunentzat ere inportantea delakoan.

Burlington

Erregai fosilen aldeko apustuak *fracking* edo haustura hidraulikoaren bitartez ateratako gasaren eta petrolioaren alde egitea ere eskatzen du, eta horretarako Donald Trump bezalako agintari bat izatea bezalakorik ez dago, gizakion jarduera ekonomikoek klima aldaketa eragiten dutela ukatzen baitu, eta aurreko presidentek jarduera kutsakorrenei jarritako oztopoak kentzen hasia baita.

Hala ere, AEBetan herritar askok egin du kontrako apustua, energia-iturri garbien aldekoa alegia. Adibiderik ikusgarriena Kanadako mugaren ondoan dagoen Vermont estatuan dugu, AEBetako ipar-ekialdean. Burlington hiriak 42.000 biztanle ditu eta iturri jasagarriek emandako energia baino ez dute kontsumitzen bertan. Bertako alkatea Bernie Sanders izan zen orain urte batzuk, iaz Alderdi Demokratik egindako primarioetan ia sekulako ezustekoa eman zuen politikaria (*establishment* ahalguztidunarentzat ezustekoa, estatubatuar askorentzat ilusioa eragiteko moduko hautagai bakarra zelako). Kasualitate hutsa? Demokraten primarioak garbiak izan balira, alderdiko buruek Hillary Clintonen aldeko maniobra ilunak egin izan ez balituzte...

AEBetako gida askotan esaten da Burlington hiria dela herrialdeko onenetakoa bertan bizitzeko. Herritarrek harro-harro eginda esaten dute beste hiri askok bekaizkeriaz begiratzen dietela. Miro Weingberger egungo alkateak badaki ezinezkoa dela Burlungtoni Sandersekin eta bere ingurumenaren defentsarekin duen lotura kentzea, baina energia garbien aldeko erabakia berriagoa dela nabarmentzen du: «Vermonten dugun zentral

Goiko irudian, jatorrizko herriek Alaskako Kontseiluaren bilera zela-eta egindako ekitaldia.
Nicholas KAMM | AFP

Behekoan, Garrett Black meteorologoa eta bere bi laguntzaile «urakan ehiztari» batean sartuta.
Rhona WISE | AFP

2

AEBetan itsasertzean bizi diren bi milioi lagun gaur egun duten etxea utzi beharrean izango dira uholdeen eraginez, NOAA erakundeak egin dituen kalkuluen arabera. Makina bat lekutan bizitzen jarraitzea ezinezko bihurtuko du klima aldaketak.

%100

Burlington hiriak kontsumitzen zuen ia energia guztia zentral nuklear bati erosten zion. Gaur egun biomasatik ateratzen dute energiaren %45, beste %30 zentral hidroelektrikoetatik, parke eolikoetatik %24 eta eguzkitik beste %1



nuklear bakarrari elektrizitate gehiago ez erosteko erabakia 2004an hartu genuen».

Hiriak ordura arte kontsumitzen zuen ia energia guztia aipatu zentral nuklearrari erosten zionez, ausardiaz gain, imajinarioa ere behar izan zuten egoera hura atzean uzteko. Gaur egun biomasatik ateratzen dute kontsumitzen duten energiaren %45, zentral hidroelektrikoetatik %30, parke eolikoetatik %24 eta eguzkitik beste %1.

“Político” aldizkariak orain sei hilabete argitaratu zuen hiriari buruzko testu argigarri bat. Bertan defenditzen zuten egileek energia-iturri garbien aldeko erabakiak herritarren bizimodu arlo askotan aldatu duela: nekazaritza jasagarria gara-

tzen duten kooperatibak sortu dira eta garaiko produktuak saltzen dizkiete herritarrei; eta burlingtonar askok kontagailu inteligenteak ipini dituzte, beren kontsumoa hobeto ezagutu eta aurreztu ahal izateko.

Gauzak era jasagarriago batean egin daitezkeela erakusten ari dira Burlingtongo herritarrek, Taylor Ricketts Vermontgo Unibertsitateko Ekonomia Ekologikoko irakasleak jakitera eman duenez: «Burlingtonen ez dago gauza magikorik. Naturak ez digu beste hiriei baino eguzki ordu gehiago eman, ez daukagu haize indartsuagoa edo ur gehiago daraman ibairik. Beraz, guk hori egitea izan badugu, gainerakoek ere beste horrenbeste egin dezakete».

Energia nuklearrak dituen arazoak ere kudeatu beharko ditu Donald Trump presidentek.

Nuklearrak

AEBetako ipar-mendebaldean dagoen Washington estatuan, Seattle hiritik 300 kilometrora, hondakin atomikoak jasotzeko erabiltzen den lur azpiko depositu handi batean (AEBetako handiena) zulo kezagarri bat sortu zen hilaren gan (zazpi metroko diametroa zuen), Kanadako irrati batek jakinarazi zuenez. Larrialdi egoera deklaratu zuten Hanfordeko gunekoan eta agintariak kontatuta koaren arabera, ehunka langile ebakatu behar izan zituzten (iturri batzuek nabarmendu du-

Gida askotan esaten da Burlington hiria dela AEBetako onenetakoa bertan bizitzeko. Herritarrek harro-harro eginda esaten dute beste hiri askok bekaizkeriaz begiratzen dietela

Ezbehar bat jasan berri duen Hanfordeko gune nuklearrean egin zuten 1945ean Nagasakin botatako bonba atomikoa. Geroztik beste 60.000 lehergai nuklear egin dituzte bertan

te instalazio horietan 11.000 lagunek lan egiten dutenez, eba-kuatutako langile kopuruak handiagoa izan beharko lukeela). Eraitsitako tanga bertan lanean ari ziren pertsonak eba-kuatzeaz gain, inguruan zeuden beste langileei hasiera batean esan zitzairen leihoak eta aireztatzeko sistema guztiak ixteko, eta bertan zuten ezer ez jan edo edateko. Azkenean horiek ere ebakuatu egin zituzten.

Hanfordeko konplexua Columbia eta Yakima ibaien ondoren eraiki zuten, 1943an. Eremu sekretu bat da, Errusiako Mayakekin gertatzen den moduan, arrazoi berberarengatik: bertan ekoizten zuten bonba atomikoa egiteko beharrezkoa zuten plutonioa. Hantxe eraiki zuten B erreaktorea, plutonioa ekoizteko lehen ekipamendua. Bertan egin zuten 1945ean Japoniako Nagasaki hirian botatako bonba atomikoa, 70.000 hildako eragin zituen. Geroztik, beste 60.000 lehergai nuklear gehiago ere egin dituzte. Hasiera batean Defentsa Departamendua- ren ardurapean bazegoen ere, azkenean Energia Sailak hartu behar izan zuen. Egun 220.000 metro kubiko hondakin nuklear oso kutsakor dituzte bertan gordeta. 1970eko hamarkadan desklasifikatu zituzten dokumentu sekretuei esker jakin zen erradiazio isurketak sarri izan direla Hanforden, inguruko airearen, luraren eta ibaien kalterako. Bederatzi erreaktore nuklear lanean izatera iritsi zen Hanford. Adituek egindako kalkuluen arabera, 2060 arte 100.000 milioi dolar gastatu beharko dituzte, eremua garbitzeko.

«Erne egon gaitezen jaso dugun oharra izan da istripua», adierazi du Tom Carpenter Hanford Challenge gobernuz kanpoko erakundeko zuzendariak. «Instalazio zaharrak dira, gaste- tzen ez direnak; dagoeneko eraisten ari diren lekuak dira, oso arriskutsuak», esplikatu du ekintzaileak. Nabarmendu du bertako tuneletako zutabe asko egurrezkoak direla eta depositu batzuetako goiko aldea oso eze- gonkorra dela. «Hondakin erra- diaktiboen kudeaketa ez dute

kontrolpean agintariek», esan du Kevin Kamps Beyond Nuclear elkarteko eledunak. Hondakin tangak ixteko eskatu du, hondamendiak saihesteko.

Errieta Artikoan

G7 munduko herrialde aberatse- nak hartzen dituen taldeak datorren astean egingo duen gailurraren ondoren jakinaraziko du Trumpek AEBak Pariseko hitzarmenetik aterako dituen ala ez, Sean Spicer eledunak adierazi berri duenez.

Presidenteak berak orain hila- bete esan zuen berehala hartu- ko zuela «erabaki handi bat»,

Jatorrizko herriak eta klimaren aldeko ekintzaileak Seattle hirian Chase Bankek duen egoitzaren aurrean protestan, Keystone XL oliobidea finantzatzeko ari delako.
Jason REDMOND | AFP

baina bere planak aldatu behar izan ditu, beste behin.

Rex Tillerson estatu idazkaria Artikoko Kontseiluak (AEBak, Errusia, Kanada, Suedia, Finlandia, Norvegia, Islandia eta Danimarka daude bertan) Alaskako Fairbanksen egindako bileran izan zen hilaren 12an. Bi urtean behin ministroek egiten duten batzarrean bere Gobernuaren jarrera defenditzea tokatu zitzaion: «Ez dugu arinegi jokatu nahi, azken erabakia hartu aurretik zuen posizioak ondo ulertu nahi ditugu. AEBentzat egokiena den erabakia hartu nahi genuke».

«Zer esango luke gure planetak mahai honetan eserita izango bagenu? Seguru asko gogoraziko liguke Artikoak gure hozte-sistema moduan funtzionatzen duela», adierazi zuen Margot Elisabeth Wallström Suediako Atzerri ministroak. Gogora ekarri zuen hemendik

hogeitaz ingurura Ozeano Artikoko zati handi bat izotzik gabe egongo dela eta bertako ekosistema aldatzen hasia dagoela. «Parisko Hitzarmenak zientzian oinarritutako bidea eskaintzen digu arrisku horiek ahal den neurrian urruntzeko», esplikatu zion Wallströmek Tillersoni.

Azken bi urteotan AEBei egokitu zaie Artikoko Kontseilua zuzentzea eta Alaskako batzarrean Finlandiak hartu zuen lekukoa. Timo Soini bertako Atzerri ministroak ere Parisko Hitzarmenarekin bat egin zuen.

Etxe Zuriari Alaskako herriek ere egin zioten errieta Artikoari buruzko bileran. «Beroketa globalari aurre egiteko epe luzeko politikarik gabe gure kulturak ez du izango bizirik jarraitzeko aukerarik», adierazi zuen Ethel Blake Gwich'in nazioarteko kontseiluko ordezkariak. Herri horiek beste inork baino hobeto dakite zer den klima aldaketa.



KONGO

«Kamuina Nsapu» erregearen heriotzaren osteko gatazka eta Kasaiko sarraski ilunak

 JENDARTEA / Umoya

Luba etniako klan jakin batek izendatutako erregeari ez zion bere oniritzia eman Kinshasako Gobernuak eta haserreak eragindako borroken ondorioz erregea bera, «Kamuina Nsapu», hil egin zen. Kabilaren indarrek haren gorpua bahitu ostean, zibilen aurkako eraso ugari hasi ziren probintzia ezberdinetan. Familiak ezin du ulertu zer gertatu den.

Kongoko herri baten ohiturak ez zituen errespetatu Kinshasako Gobernuak eta Kasai eskualdeko Bashila Kasanga luba etniako klanak hortzak erakutsi zizkion Kabilaren erregimen ustelari.

Iazko abuztuan ehunka lagunek Tshimbulu hiriko sarreran barrikadak jarri zituzten eta segurtasun indarrek izandako borroketan makina bat lagun hil ziren. Erregea bera ere hil zen borroketan, eta Kinshasak eraman egin zuen bere gorpua, herritarren haserrea areagotzeko.

Testuinguru hori baliatu nahi izan dute Kongon aritzen diren beste talde armatu batzuek beren historia propioa garbitzeko eta nazioarteko hedabideek Bashila Kasanga klanari leporatu dizkiote Kasai eskualdean eta inguruko beste probintzia batzuetan egindako sarraski guztiak. Orain, Jacques Kabeya Ntumba errege berriaren izendapena Kongoko agintariekin ere onartu dutenean, egoerak bere onera etorri beharko luke, eta mahaiaren gainean geratu diren makina bat galdera erantzuten hasteko moduan dira analistak.

«TERRORISTAK» ETA «ORDENA»

Umoya webguneak egin duen irakurketaren arabera, Kongoko Errepublika Demokratikoko agintariekin eman duten bertsioak ez du ez hanka ez bururik, baina horixe da hedabide nagusiek zabaldu duten bakarra: “Kamuina Nsapu terroristak” alde batetik eta “ordenaren indarrak” bestetik.

Jean-Pierre Mpandi medikua 2011n itzuli zen Kongora lanean ari zen Hegoafrikatik. Bashila Kasanga klanaren errege izatea egokitu zitzaion, bere osaba hil ondoren, oinordetza arauen arabera. Hala, *Kamuina Nsapu* edo “Inurri Beltza” bihurtu zen, hau da, klaneko erregea.

Kongoko konstituzioak berak babesten ditu klanen buruzagi tradizionalak eta berauek izendatzeko prozedurak, teoriarik behintzat. Baina Umoyak nabarmendu duenez, azken hamarkadotan buruzagi horietako asko oso gaizki tratatu izan dituzte Kinshasako zein probintzietako agintariekin, ustelkeria onartzeko prest ez zeudelako batez ere. Kasu batzuetan hil egin dituzte, beren herriak defenditzeagatik.

KABILA ETA KONSTITUZIOA

Joseph Kabilaren Gobernuak makina bat buruzagi ezarri ditu azken urteotan Kasain. Buruzagi batzuk pozoituta hil izan dituzte eta herritar askok Kabilaren erregimena ikusi dute hilketon atzean, presidenteak berehala izendatu izan baititu ondorengoak, betiere bere gus-tukoak, nahiz eta beren herriarekin ia loturarik ez izan. Joera horrek iraindu egiten ditu jatorrizko herriak eta agintariekin mesfidantzak gora egiten du. Konstituzioak dioena hankaz gora bota du Kabilak (Estatuak ez du sartu behar erregeen izendapen prozesuetan, herritarrek erabakia hartu ondoren onartu besterik ez du egin behar izendatuak legerik urratu ez badu).

Bada, Jean-Pierre Mpandi izendatu zuten Kamuina Nsapu,

Azkenean, pasa den martxoan, Kinshasak Jean-Pierre Mpandi erregearen gorpua itzuli zion Bashila Kasanga klanari eta tradizioak agindutako ehorzketa egin ahal izan zuten. Jacques Kabeya Ntumba izendatu zuten orduan errege (beheko argazkian, kazetariekin hizketan; horren gaineko argazkian, Jean-Pierre Mpandi). Kongoko agintariekin apirilaren 16an onartu zuten «Kamuina Nsapu» berria. Klana eta Mpandiren familia bakean daude orain. Baina Kasain erasoek ez dute etenik izan, hedabideek aipatzen ez badituzte ere. Analista batzuek egoera Kasain eskualdean eta inguruko probintzietan aurkitutako kobreakin lotu dute.

GAUR8





baina Kinshasak bere izendapena ez onartzea erabaki zuen, medikuaren haserrea eraginez. Ez makurtzea erabaki zuen ordurako errege bihurtuta zegoen herritarrak. Gainera, giroa gehiago gaiztotzeko, bere etxea miatu egin zuten soldaduek bertan ez zela: gauza guztiak txikitu, etxean zeudenak jipoitu, emaztea bortxatzeko ahalegina... Sendagilearen frustrazioak gora egin zuen. Geroztik erasoak eta liskarrak izan dira Kongoko bost probintzian, Mpandiren etxekoek ulertu ezin dutena.

INTELEKTUAL BAT ERREGE

Bortizkeriaren aurkako jarrera erakusten duen familiak adierazi du beste norbaitek erabili duela “Kamuina Nsapu” izena krimen horiek egiteko. Eransten dutenez, hedabideek puztu egin izan dituzte erasoak, «eta lau lagun baino sartu ez ziren lekuan, berrehundik gora sartu zirela esaten dute».

Hildako erregearen ingurukoek esplikatu dute Mpandi intelektual bat zela, bere herriaren eskubideak zeintzuk diren bazekiena, eta Kongok dituen arazoak salatu zituen: buruzagi tradizional eta erakunde ofizial asko nahastuta dauzkan ustelkeria, atzerriko indar eta konpainiek duten gehiegizko boterea, injustizia, gehiegikeriak eta bere herriak bizi duen erabateko pobrezia. Azkenean, iazko apirilean, «erresistentzia mugimendu» bat iragarri zuen.

Arazo horiei bukaera eman nahi zuten talde berriak. Erregeak nabarmentzen zuen lurraldeko ondasunak buruzagi tradizional batzuek eta atzerritarrek eramaten zituztela. «Kinshasatik abiatuta, Kongo bahitu dutenen morroi» deitu zuten buruzagi tradizional ustele: «Kongoko diru guztia Ruanda, Uganda, Tanzania eta Burundira joaten da, Kasaiko seme-alabek duintasunez bizitzeko aukerarik ere ez dutenean».

Kongoko Errepublika Demokratikoko Armadari herritarren aurkako sarraskiak egitea askotan leporatu izan zaio. Irudian, desfile militar bat, Kindu hirian.
GAUR8

Mpandik bere Mugimendu Politiko Tradizionalarekin bat egiteko deia luzatu zuten herritarrei, «justiziaren eta berradiskidetzearen aldeko borrokan esku hartzeko». Bere hitzaldietan «okupazio Gobernuaren aurka» borrokatzeko deia egiten zuten ezin haserreago zeuden gazteei. Umoya webguneak idatzi du hor hasi zitzaizkiola benetako arazoak, medikuak esandakoa berehala hedatzen baitzen, Kasain zein bertatik kanpo.

Iazko abuztuan ehunka lagunek barrikadak egin zituzten Tshimbulu hirian, erregeak berak esku hartu zuen ekintzan. Ondorengo egunetan izan ziren borroketan polizia eta soldadu batzuk hil zituzten matxinoek eta erregimenak abuztuaren 12an sekulako erasoaldia antolatu zuen: hemeretzi hildako (onartu gabeko erregea tartean).

Bashila Kasanga klanekoentzat iraingarria izan zen erregea hil izana, jakina. Kongoko Errepublika Demokratikoko Armada ez da beraien segurtasuna bermatzeko eraturako erakunde bat, agintari ustelen zerbitzura dagoen banda armatu kriminala baizik, etnia ezberdinetako herritarrek salatu izan dutenez.

HILOBIAREN PROFANAZIOA

Gauzak oso bero bazeuden, erregearen hilobiaren profanazioak sutan jarri zituen klanekoak. Tradizioak agintzen duen moduan lurperatu ondoren, gorpua lapurtu egin zuten eta «leku seguru batean ehortzi», Alex Kande Mupompa Kasaiko gobernadoreak berak azaldu zuenez. «Kinshasako agintariak» esan zioten horrela egiteko. Gerra deklaratutzat hartu zuten Bashila

Kasanga klanekoek: ezin zuten errege berria izendatu tradizioak agindu moduan aurreko Kamuina Nsapu edo erregea ehortzi arte. Konstituzioak prozesu hori errespetatzen du, baina Kabilaren erregimenak ez.

Orduan makina bat eraso egin ziren parrokia, komentu, herri, soldadu zein polizien aurka. Hedabideek «Kamuina Nsapu miliziar» leporatu zizkieten eraso guztiak. Gainera, garai hartan Nazio Batuetako bi ikerlari (Kasaiko indarkeriari buruzko lan bat prestatzen ari ziren) desagerarazi egin zituzten (handik hamasei egunera aurkitu zituzten gorpuak). Estatubatuarra bat, suediar-txiletarra bestea.

KASAIKO HOBI KOMUNAK

Desagertuta segitzen duten lau kongoarrekin batera, 23 hobi komun aurkitu eta dokumentatu zituzten Kasain. Beraiek elkarriketatutako lekukoek esan zieten, kamioi militarretan etorritako eta militarrez jantzitako gizonak egin zituzten hobiak, ez milizianoek, eta bertara bota zituzten gizon zen emakumeen gorpuak, umeenak... Hala ere, Gobernuak dio «Kamuina Nsapu miliziako terroristek» egin zituztela hobiak. Nazio Batuek diote gutxienez 40 hobi komun daudela Kasai osoan eta gertatutakoa ikertzeko eskatu dute. Alferrik, ordea.

Bertakoek oraindik ezin dute ulertu orduan gertatutakoa. Zibilen aurkako eraso horiek beraien inguru geografiko zein kulturaletik kanpo egin ziren, beraien egoerarekin zerikusirik ez zuten herritarren aurka. Beste norbait ari zen beren erregearen izena erabiltzen.

Jean-Bosco Kongolo defentsa eta segurtasun kontuetan adituak adierazi du Kasaiko matxinoek ez dutela herrialdeko beste probintzia batzuetan sortu diren mugimenduen tankerarik, Kamuina Nsapu fenomenoak «ez baitago ez antolatuta ez egituratuta». Hain bizkor hedatu izanak esan nahiko luke, begirale batzuen ustez, frustrazioa erabatekoa dela zenbait lekutan eta ez dela gauza handirik behar egoera leher dadin.

Iazko apirilean, «erresistentzia mugimendu» bat iragarri zuen Mpandik. Ondasunak atzerritarrek eramaten zituztela, ustelkeria eta herritarren pobrezia salatu zituen erregeak

Borroketan polizia eta soldadu batzuk hil zituzten matxinoek eta erregimenak abuztuaren 12an sekulako erasoaldia antolatu zuen: 19 hildako (onartu gabeko erregea barne)



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Zonifikazioa, hirigintza, Zizur


Nafarroako hizkuntza-zonifikazioa 1980ko hamarkadan eraiki zen euskarari harresi bat ezartzeko. Lau alderdien gobernu berriak berandu baino lehen eraitsi beharko lukeen harresia, Kontseiluak edo Euskal Herrian Euskarazek etengabe aldarrikatu moduan. Harresi zitala delako, lurralde antolamenduarekin erabat lotutakoa, herritarren oinarrizko eskubideak bizitokiaren eta lurralde mailako zerbitzuen kokapenaren arabera zonifikatzen dituen heinean: zona euskaldunean bizi den herritarrak, esaterako, etxean utzi behar ditu bere hizkuntza eskubideak zona mistoan dagoen Iruñerriko ekipamendu handi batera (ospitalera, biltzar jauregira, unibertsitatera...) joaterakoan. Gero esango dute ez dagoela erlaziorik lurralde antolamenduaren eta hizkuntzaren artean!

Iruñerriko Zizur udalerriak eremu mistotik eremu ez-euskaldunera igarotzeko egunotan egindako eskaerak zonifikazioaren ahuldadeak are gehiago azaleratu ditu. Eta ez da txantxa, bertan dagoelako San Fermin ikastola, Nafarroako handienetakoa. UPNren kasketak, gainera, ageriago utzi du hirigintzaren eta euskararen arteko harremana. Ez baita kasualitatea justu Zizur Txikia kontzejua biltzen duen udalerrian jazotzea eskaera hori, duela bi igandetako GARA egunkariak jakitera eman zuenez, Enrique Miranda undiotarraren bidez: «Zizur Txikian bizi den jende gehiena Opus Deiren ingurukoa da, eta, hori dela eta, UPNk hauteskunde-arrakasta izugarria lortzen du bertan». Parlamenturako azken hautes-

kundeetan, hain zuzen, Zizur izan zen 2.500 biztanle baino gehiagoko udalerrien artean UPNren boz gehien lortu zituen Nafarroa osoan: % 45,29.

Interesgarria da hauteskunde datu hori Zizur Txikiaren kokapenaren eta hiri-ereduaren azterketarekin gurutzatzea. Kokapena aparta baita «Nafarroako Unibertsitatea» delakoaren campusean lan eginez gero: Opus Deiren Goroabe ikastetxe nagusia zein Donapeako UGPS polemikoaren lursailak, esaterako, kilometro eta erdi eskasera daude, oinez lasai egiteko moduko distantziara. Eta, hiri-ereduari buruz, oso deigarria da Zizur Txikiko 2.385 biztanleetatik gehiengo osoa etxe familiabakarretan bizitzea, testuinguru antzekoan dauden herrietan ez bezala (alboko Zizur Nagusia, adibidez). Ez dago *gated community* baten moduan hesitua, ez, baina argi dago Zizur Txikiak Opus Deiren gizarte-klub bat ere (Quinto Real) barne biltzen duen hiri-enklabe eksklusibo bat osatzen duela, besteak beste hiri-plangintzari esker.

Eta ezin ahaztu Zizurren bertan jazotzen diren beste bi hirigintza-kontu potolo: ustel irtendako Gatzolatzeako jardueraren ekonomikoetarako sektore erraldoia, kontzeju hori Nafarroako zorpetuena bilakatu duena (kasualitatez, Zizur Txikiak jarraitzen dio zorpetueneren zerrendan); eta, jakina, *last but not least*, oraingoz kale egindako Gendulaingo hiritzar berria, 55.000 biztanle bildu behar dituen. Jesus A. Barrikarte UPNko alkate euskofoboaren desioak betez gero, eremu ez-euskaldunean biziko diren 55.000 nafar herritar. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Cifuentesen egoerak kezka sortu ote zuen Sabin Etxean?

Azkenaldian Espainiako haizeek hemengo bazterrak harrotzen dituzte. Cristina Cifuentes Madrilgo Erkidegoko lehendakariak epaitegietako bidea har zezakeela-eta, sekulako aparra sortu zen joan zen asteartean ordu batzuetan. Delituak leporatzen zizkion Guardia Zibilaren txosten batek. Nahikoa zantzu ba omen zegoen. Epaileak, fiskalak eta Cifuentesek berak apokalipsia zirudiena indargabetzea lortu zuten, epaileak eta fiskalak ez dutela ikertzeko asmorik esan eta Madrilgo lehendakaria babes horrekin jendaurrera irten ostean. Gaitz erdi, oraingo, nahiz eta arriskua hor dagoen, eta susmoa ere bai: Cifuentesena ez ote den alderdi barrutik etorritako eraso izan. Bera ere ez omen da ondokoez fio.

Polizia txostena kaleratzeak Cifuentesen gainbehera zekarrela zirudien ordu horietan zenbait bihotz taupadarik gabe geratu ziren, jadanik ustelkeria ez baitzen aurreko gobernuetara (Agirre, Grana-dos, Gonzalez..) mugatzen. Oraingo agintariak kolpatzen zituen zuzen-zuzenean. Akabo birsorkuntzaren mezua, akabo Madrilgo Gober-nua sostengatzen duen ituna, fini belaunaldi berri bat badatorrela irudikatzeko aukera bera ere. Cifuentes omen zelako ustelkeriaren kontra borrokatzea zetorre-na. Bai, taupadarik gabe geratu ziren bihotz asko, baina, beharbada, ez soilik Madril aldean. Akaso, Sabin Etxean ere susto ederra hartuko zuten.

Izan ere, Kupoaren akordioa sinatu behar zuten egun gutxira, eta jeltokideek PPri Estatuko aurrekontuetan eman behar dioten babesa edonon da mintzagai. Ustelkeriaren kiratsa jasanezina zen akordio horiek erdietsi zituztenean, baina Cifuentesen kapitulu berri horrek, hasierako bertsioan bederen, are eta estutasun handiagoa sortu ahal zion EAJri, eguneroko ezustekoetan murgilduta.

Hori dena gutxi ez eta politikoki beste argazki esanguratsu bat ere ikusi dugu: EAJk Mariano Rajoyren aurrekontuei babesa emango dio Gasteizko Legebiltzarraren hitzaren kontra, ganbarak gehiengoz bozkatu baitu haiek errefusatzeko. Madrilen alde Legebiltzarraren irizpidea-

ren kontra, bide autonomikoaren bertsio surrealista samarra.

Egonkortasunari eman nahi dio balioa EAJk, beste edo-zeren gainetik. Kupoaren akordioa ona dela dio. Gurea zena berreskuratzeko PP ahul egotea aprobetxatu omen dugu. Aldebikotasuna deitzen diote horri. 2018rako hauteskundeak aurreratzen badituzte –hala izango dela dio batek baino gehiagok–, ea Espainiako Kongresuko eserleku banaketak alde-biko harreman hori bermatzen duen berriro ere. Burujabetza partekatua deitzen diote horri, antza.

Egindakoarekin paparra atera du Gasteizko Gobernuak. Egon gintezkeen egoerarik onenean gaude. Hauxe da topea. Eta hortxe dago, bada, kokka. Euskal Herrian izan daitezkeen aukerei eta indarrei topea jarri nahi izan baitiote jeltokideek, une historikoak garapen handiagoa eskaini arren. Ikusi besterik ez dago, esate baterako, Gas-

Urkulluk sortutako baldintzek eskaintzen duten potentzialtasuna kamustu egin nahi du, egiten ari dena egin daitekeen gauzarik onena omen delako. Maila orokorra jaitsi nahi du eroso egoteko

teizko Legebiltzarraren osaketa. Estatuaren proiektua krisian dago, Kataluniak ibilbide luzea egin nahi du... eta, egoera horretan, Urkulluk sortutako baldintzek eskaintzen duten potentzialtasuna kamustu egin nahi du, egiten ari dena egin daitekeen gauzarik onena omen delako. Maila orokorra jaitsi nahi du eroso egoteko.

Fase historiko oso gogorretik gatoz. Oraindik haren arrangura ez da apaldu, kartzeletan ehunka euskal militante egoteak adierazten duenez, baina espero zitekeen ziklo berri honek bestelako anbizio bat merezi izatea, Euskal Herria beste egoera batera eramateko prozesu oso bat egiteko.

Ondorio bat atera dezakegu dagoeneko: egoera gogor batetik egoera zail batera pasatzen ari gara. Zaila baina erabakigarria. •

EMAKUMEEN OINEN BILA

Emakume bertsolariak, historiatik ezabatuak inolako azalpenik gabe?

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia sailko “Euskal Herria eta Amerika: lotura eta harreman atlantikoak” ikertalde finkatuak antolatuta, joan den maiatzaren 11n Gasteizko Letren Fakultatean “Emakumeen historia, emakumeak historian. Iraganaren ikuspegi berriak” izeneko mintegia egin zuten.

Egun osoan zehar izan ziren hitzaldietako batean, “Antzinako Erregimeneko emakume bertsolariak”, Ana Isabel Ugalde Gorostiza historialariak bildu dituen datuak aurkeztu zituen: noiz eta non agertzen diren emakume bertsolariak. Artxiboetan eta zenbait autoreren obretan jasotako datu horiek guztiak sailkatzeko ahalegina, Gizarte Zientzien Didaktika Saileko kidearen hitzetan.

Bertsolaritzaren historia, oro har historia bera bezalaxe, gizonen historia da. Horrek ez du esan nahi ez dela emakume bertsolaririk izan; aitzitik, garai batean gizonak adina izan zitezkeen, baina isilduak, ezabatuak izan dira. Haien gaineko estalkiaren kausak aztertu ditu Ana Isabel Ugalde EHuko irakasleak.

Ana Isabel Ugalde, «Antzinako Erregimeneko emakume bertsolariak» izeneko hitzaldian.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Emakume bertsolarien historia txiki horren berri eman aurretik, bertsolaritzaren zenbait definizio gogorarazi zituen: “euskaldunen artean sendo errotutako ahozko kultura baten agerpen edo iraupena”, “herri literaturaren modalitatea” eta “ahozko genero erretoriko epidiktikoa, kantatua eta bat-batekoa”. Epidiktikoa, «bertsolaria- ren asmoa entzuleengan emozioak eragitea baita», eta XVIII. mende bukaeratik aurrera erruz saltzen zituzten bertso paperak edo «kanta paperak» aipatu zituen Ana Isabel Ugaldek, «bertsoak, bai kanta paperak bai bat-batekoak, kantatzeko dira-eta». Eta Xabier Amurizaren bertso bat erakutsi zuen azken definizioa emateko, bere iritziz egokiena:

*Neurritz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor zer kirol mota
den bertsolaritza*

Erakutsitako Power Point dokumentuan zenbait bertso paper agertu ziren, tartean “neskazahar” batenak. Esan zuenez, zalantza dago bertso horien egilea benetan emakumea den edo “neskazaharrei” barre egiten dien gizon bat. Izan ere, paper horien atzean nor zegoen jakitea ez da erraza.

BERTSOLARITZAREN HISTORIAZ

Bertsolaritzaren historiari heltzeko, ba dira bi ideia oso kontrajarri. Baten arabera, euskaldunak Neolitikotik egin dituzte bertsoak. Bestearen arabera, bertsolaritza «asmazio» nahikoa berria da. Ugaldek bata eta bestea baztertzen dituzten zenbait autoreren lanak hartu zituen hizpide, hala nola Joxe Azurmendiren “Bertsolaritzaren estudiorako” saioa. Bertan, Azurmendik dio bertsolaritzaren jaiotza XIX. mende hasieran jartzeak pobretu baino ez duela egiten. Haren ustez, bertsolaritza XVIII. mendean euskal gizartean errotuta zegoen, musika eta bertsoa estu lotuta, batera garatu ziren, eta egileak, letratuak eta letragabeak, gizonak eta emakumeak ziren.

Carmen Larrañaga ikerlariaren lanaz ere hitz egin zuen, «ikuspuntu literariotik baino historiko eta soziologikotik» heldu baitio bertsolaritzari. Larrañagak, batez ere, XIX. mendetik aurrerako emakume bertsolarien gaineko ikerketa egin du, eta bertsolaritza inprobisazioari eta batez ere gizonei lotu izana kritikatu du, dioenez, horrek aniztasuna baztertu baitu. Emakumeen bertsolaritzaz askoz gutxiago hitz egin da, eta horregatik zailagoa da haien gaineko ikerketa, askoz gutxiago agertzen baitira dokumentuetan. Gainera, Ugaldek esan zuenez, herrikoia goa da, emakume bertsolari gehienak ez baitziren inongo elitetako kide.

DESAGERTZE LUZE BATEN AZALPEN BILA

Badira XV. mendeko emakume bertsolarien zenbait lekukotasun, Mitxelenak gaur egungo bertsolaritzaren aitzindaritzat jo zituenak, eta oro har onartuta dago garai hartan kantatzen zi-



tuzten elegia batzuen egileak beren garaiko emakume bertsolariak zirela. Baina XV. mendetik XIX. mendera bitartean emakumea desagertu egin zen bertsolaritzatik, «subjektu aktibo gisa behinik behin». Inork ez du nola eta zergatik azaldu. Azalpen falta hori izan zen, hain zuzen, Ugalderen ikerketaren motiboa, denbora tarte luze horretako hutsune horren atzean zer da goen argitzeko ahalegina.

Bildutako datuen errepaso arin bat egin zuen, emakume inprobisatzaileengandik hasita. Lekukotasunik zaharrenak XV. mendekoak dira, Esteban Gari-
baik jasoak. Emakume haiek tokiko nobleziakoak ziren eta eresiak egiten zituzten. Haietako bat Santxa Otxoa Ozetakoa izan zen, bando-gerretan hildako senar Martin Bañezi kantatu ziona. Beste bi, erditzean hil zen emakume baten ahizpa eta koinata, Milia Lasturkorenak, alegia. Aitari kantatu zion Alostorreko alaba ere aipatu zuen.

Garai hartakoak dira, halaber, agintari zibil eta erlijiosoen debekuak, emakume inprobisatzaileen «gehiegikerien» aurka; izan ere, kantatzeaz gainera, badirudi beren mina adierazteko lurrean etzan, ileetatik tiratu eta keinu arranditsuak egiten zituztela. Hala ere, debeku haiek ez omen zuten arrakasta handirik izan. Badira Bizkaian XV. mendeko lekukotasun anonimoak, eresiak kantatzen zituzten emakumez hitz egiten dutenak. Behin eta berriz esan izan da Foru Zaharrak debekatu zituela «espektakulu» haiek; hala ere, Ugaldek dioenez, 1526ko Bizkaiko Foru Berriak xedatu zuen debeku hura, emakumeentzat eta hildakoen senar eta gainerako senideentzat ere. Emakumeei senarra lurperatu ondoren negar egitea debekatzen zieten, elizkizunak normaltasunez egitea eragotz ez zezaten.

Emakume inprobisatzaileen beste multzo bat baladak egiten zituztenek osatzen dute. Gari-
baik dioenez, Juana Butroekoa, handikien familia batekoa, kanta zahar baten egilea bide da. Bere amari egin zion, hark ez zuelako alaba Olasoko dorrera



Valentin Zubiaurren
«Versolaris» margolana. Izen
bereko beste bizpahiru koadro
egin zituen, eta haietako batean
ageri diren bertsolariak
emakumeak dira.
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

ezkontzerik nahi, hango jauna bere senar hilaren etsaia izan baitzen. Alabak, bere kantuan, honela esan zion amari: «*Dardoak egin arren/ bere aldia/ Olaso izango da/ neure alkia*».

XV., XVI. eta XVII. mendeetako kanta haietako askotan emakumeak dira protagonistak, eta lehen pertsonan mintzo dira. Ugaldek Benito Lertxundik famatutako «Atharratzeko gazteluko kanta» ekarri zuen gogora: «*Ama saldu nauzü/ biga bat bezala*». Hala ere, kantu hori azertu duten autore gehienek ez diote egiletzari erreparatu izan. Bakan batzuek, ordea, egilea emakumea dela diote, eta bada «Urrutiako anderia» kantaren egilea ere emakumezko poeta izan zitekeela uste duenik. Beste adibide bat 1633ko «Goizian goizik jeiki ninduzun/ ezkondu nintzan goizian» dio hasieran, eta «*bai eta ere alargun gazte/ ekia sartu zenian*», kantaren bukaeran. Dirudienez, Gabrielle Lohitegiri gertatutakoaren kontaketa da, eta baliteke Gabrielle bera

izatea egilea. Jean-Baptiste Orpustanek dioenez, nobleak dira bai kantuon egileak bai horietan agertzen den jendea, baina horrek ez du esan nahi gainerako jendeak kanturik egingo ez zuenik, kantu horiek ez direla gure egunetaraino iritsi baizik. Dirudienez, ezkontzetarako, hiletetarako eta gisako ekitaldietarako funtzio poetikoa emakumeen esku uzten zuten. Ugaldek esker onez esan zuenez, Gari-
baik emakume haien lanaren gaineko estalkia hautsi zuen.

EMAKUMEEN AURKAKO EPAIKETAK

Ba omen da behin eta berriz errepikatu izan den beste gai bat: emakume *profazadora* direlakoak, «bazter-nahasleak» alegia, baina ez dago haien adibiderik. Foru Berriko aipu batek dioenez, baziren emakume «lotsagalduek eta auzoen bazter-nahasleak» libelo iraingarri gisako koblak eta kantak jartzen zituztenak. Horregatik epaitu zituzten zenbait emakumeren berri eman zuen Ugaldek. Delitua berbera izaten zen beti: bizila-

gunen «desbideratze sexualaz» hitz egitea.

1668an Antonia de Zabala ehulearen aurkako auzia izan zen Eibarren. Kartzelatu egin zuten, kanta batengatik, «hiru dontzeila eta pertsona nagusi eta oso ondratuen» gaineko hitzengatik. 1721ean, Eibarren bertan, botikari gonazale batek Angela de Armona eta Ana Maria de Gorostiza ama-alabak salatu zituen. Ugaldek epaiketara lekuko asko joan ziren, denak emakumeak eta analfabetoak, eta kontatzen zutenez, lanean, sukaldean elkarrekin zeudela egiten zituzten bertsoak. Hori da, Ugaldek dioenez, emakume bertsolari haien ezau-
garrietako bat, beren zereginetan eta elkarrekin daudela jardutea. 1816an beste auzi bat egon zen. Lau emakume auzipetu zituzten: Teresa Antonia Beobide, Concepcion Irazusta, Maria Magdalena de Lertxundi eta Maria Antonia de Etxeberría, bikote baten amodioen berri jakinarazte-
agatik. Auzi-jartzaileak neskaren aita eta ahizpak ziren. Auzi horretan, aurreko kantu eta koplak

izendatzeko “bertso” hitza erabiltzen dute. Halaber, bertsoek zurrumurruak eta kontuak hedatzeko eraginkortasun handia zutela nabarmentzen dute. Hiru auzietan ohorea dago jokoan, Ugaldek esan zuenez, ohorea ez baitzuen portaerak ematen, bai zik eta besteek pentsatzen zutenak. Hiru auziok frogatzen dute bazirela «emakume bazter-nahasleak», besteen bizkar ondo pasatzen zutenak eta eliteari gaizki iruditzen zitzaiona egiteagatik epaituak izan zirenak. Izan ere, epaitutako emakume guztiak jatorri apalekoak ziren, eta auzi-jartzaileak gizarte-maila onekoak. Auzi haiek ez ziren emakumeen aukakoak bakarrik izan, zenbait gizon ere gauza beragatik epaitu baitzituzten.

XIX. MENDEA

XIX. mendean bertsolaritza erabat aldatu zen. Askoz errazagoa da hortik aurrerako kontaketa egitea. Aldaketa nabarmen bat bertsotan jarduteko gune publiko eta zabalak hobestea izan zen. Lantokiaren orde, plazetara, sagardotegietara eta tabernetara jo zuten bertsolariak. Halaber, mendearen erdialdera lore jokoak ere egiten hasi ziren, eta bertsolaritza merkataritza produktu bihurtu zen, bertso pape-ren salerosketaren bidez.

Antonio Zavala da bertso paper gehien bildu dituen ikerlarietako bat. Haren ustez, orrialde horien jatorria bilantzikoak ziren. Gabonetarako idatzi, saldu eta ondoren elizetan kantatzen zituzten. Bilbon, Iruñean, Baionan... oso ezagunak ziren. Bizenta Mogelek, lehen euskal emakume idazletzat joa eta itzultzailea ere bazena, bilantzikoak egin zituen. Ez zituen sinatu, andre bizkaitar batek eginak zirela baino ez zuen jarri, baina adituek diotenez, harenak dira. Bertso auliko batzuk ere egin zituen 1828an, Fernando VII.aren alde.

Bertso paper haietan emakume gehiago ere agertzen dira, hala nola Marijuan Igoa, 1830ean bertso batzuk egin zituena. Haietan kontatzen duenez, apaiz baten etxean zerbitzatzen egon zen eta haurdun geratu zen bertan. Maria Anto-



Nerea Elustondo, Alaia Martin, Oihana Bartra eta Oihana Iguaran, iazko Iruñeko sanferminetan kantari. Orain hain aspaldi ez dela arte, oso gaizki ikusita zegoen emakumeak plazan bertsotan jardutea.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

nia Soloagak, Munitibarkoa, datarik agertzen ez den baina ustez XVIII. mende bukaerakoak diren bertso batzuetan beste kezka bat agertzen du: azken judizioaren orduan Jainkoaren aurrean nola aurkeztuko den. Arnoldoren alargunak senarra galdu izanaren zoritxarra kontatzen du Amurizak bildutako bertso batzuetan. Rosario Arto-lak, bertsolari familia batekoak, garaiko aldizkarietan argitaratu zituen bere bertsoak. Izan ere, aldizkariak ere bertsoak ezagutarazteko bidea izan ziren, bai hemengoak bai Argentina eta Ameriketako Estatu Batuetako diasporako euskaldunenak.

rretako eredutzat jotzen da. Frantsesez eta euskaraz idatzi zitu- en bertsoak, bere izenarekin sinatzen zituen, eta, beste inork sal ez zitza- n, eskubideak ziur- tzen zituen. Halaber, beti jartzen zuen bertsoak bere emazteak eta berak salduak zirela, “Etxepare senar-emazteek salduta” nabar- menduta. Zalantza dago *colporteur* edo bertso paper saltzailea zen edota bertsolaria zen eta emazteak saltzen ote zituen bere bertsoak. Bertso paper batzuetan bertsolari guztiek erabiltzen zu- ten terminologia bera erabili zuen Etxeparek: “bertso berriak”.

Etxepareren garai- kide Manuel Atxarre eta Joakin Luzuriaga

XV. mendetik XIX.era bitartean emakumea desagertu egin zen bertsolaritzatik. Horren azalpen falta da Ugaldere- n ikerketaren motiboa

XIX. mendean gizonezko bertsolari batzuek ofizio bihurtu zuten bertsolaritza, baina emakumeek ez zuten pauso hori eman

Ugaldek *cordel* literatura edo “literatura arruntaz” ere jardun zuen. Bada bertso paperak litera- tura horrekin lotzen dituenik. Zenbait lekutan “itsu-literatura” esaten diote. Jean Etxepare do- napaleutarra literatura mota ho-

Segurako Itsua izan ziren, entzu- leen barrea eragiteko zuten tre- betasunagatik oso ezagunak eta hil ondoren ere gogoratuak. He- rriz herri joaten ziren eta jendea me- zatatik ateratzean egiten zu- ten beren ikuskizuna, bertsoak

saltzeko. Haien lau orri baino ez dira kontserbatu. Bertso haieta- ko batzuk autobiografikoak dira, bikotekideen arteko elkarriket- tak, horregatik ezaguna da emazteak saltzen zituela sena- rrak zorro batean zeramatzan orriak, baita gizonak gitarra jo- tzen zuela ere, eta andreak pan- deroa. Orrietako euskara ez da beti bera, ordea; Bizkaialdeko hizkera eta Errenteria inguru- koa agiri dira. Pentsatzekoa da gizona, bertsoak sinatzen zitu- na, ez zela haien egilea, ez guz- tien egilea, behinik behin.

Luzuriaga ez zen bizimodu hura zuen itsu bakarra. Zalantza da nork egiten zituen bertsoak. «Hirugarren batek? Emazteak ere egiten zituen?», galdetu zuen Ugaldek, eta Jose Arrue pintore bilbotarraren koadro bat erakutsi zuen: “El ciego ver- solari”, itsu bat gitarra eskuan eta ondoan andre bat ageri dire- na. Baita Arrasateko argazki bat ere: gurdi batean bikote bat, gi- zona gitarra eta andrea pande- roa jotzen; aurrealdean, bertso paperak dauden kaxa ikusten da. «Zer dira, bertsolariak, bertso pa- per saltzaile hutsak? Zein da au- tore?»». Zalantza asko, baina ez omen dago dudarik jende hura ikuskizun haietatik eta bertsoak saltzetik bizi zela, eta badirudi arrakasta zutela.

Emakume gehienak egile ano- nimoak ziren, eta bat-bateko bertsoak egiten zituzten beren ohiko zereginetan. Gizonezko bertsolariak oso ospetsuak izan ziren, eta batzuek ofizio bihurtu zuten bertsolaritza, baina ema- kumeek ez zuten pauso hori eman. 1811n Dominique Joseph Garatek Napoleoni kontatu zion Pirinioez bi aldeetako dantzen eta kantuen berri. Esan zionez, bi sexu- etako gazteak elkarrekin egoten ziren, «beren ahotsak nahastuz, bat-bateko hitzen me- lodiak durundarazten». 1876an, Juan Mañe y Flaquerrek, “El oa- sis: viaje al país de los Fueros” lanean dio euskara bertsoak egi- teko erraztasun handiko hiz- kuntza dela, eta «bi sexu- etako inprobisatzaileen kopurua infi- nitua» dela. Valentin Zubiaurrek 1913tik aurrera pintatu zituen hiru koadrok “Versolaris” izen-

Izan zen lore jokoetan parte hartu ez ezik, irabazi ere egin zuen emakumerik. Prentsak naturaltasunez jasotzen zituen garaipen haiek

Matea Joxepa Zubeldiaren alabak lotsatu egiten ziren amak bertsotan egiten zuelako eta hil zenean haren koaderno guztiak erre zituzten

burua dute. Bitan argi ikusten da inprobisatzaileak gizonezkoak direla; haietako zaharrenean, berriz, emakumeak dira inprobisatzaileak. Jakingarria da irudi hori, emakumeak kantuan eta aldi berean lanean ari baitira. Ugalderen ondorioa, beraz, koadro horietan ere betetzen da: gizonek ia profesionalak izateko aukera zuten eta emakumeak beren egunerokotasunean baztertuta zeuden.

EMAKUMEAK LEHIAN

Hala ere, izan zen lehian parte hartu zuen emakumerik; esate baterako, Anton Abadiak antolatutako lore jokoetan. Lehiok 1851n egiten hasi ziren, eta garai-ko prentsaren kronikak haien berri ematen zuten. Hasieran alde aurretik prestatutako bertsoak abesten zituzten; ondoren, batbateko lehia bihurtu ziren. Batzuek diotenez, lore joko haiek nolabait egungo txapelketen kanonak zehaztu zituzten. Eta izan

ziren, parte hartzaile ez ezik, emakume txapeldunak ere. Josepa Hondarribikoa oso bertsolari trebe eta ospetsua izan zen, Bilintxek aipatua, baina ez zuen lore jokoetan parte hartzen.

Julien Vinsonek esan zuenez, baziren emakume bertsolariak, baina «nekez ausartzen ziren parte hartzera». Hala ere, gutxienez hiruk parte hartu eta irabazi egin zuten. Marieder Uthurralt da haietako bat. Emakumeen garaipen haiek naturaltasunez jasotzen zituen prentsak. Hala ere, «L'Avenir des Pyrénées» kazeta errepublikanoaren kronika batek, 1894an, emakume txapeldunari «inprobisatzaile bikaina» esan bazion ere, bere sorpresa agertu zuen «sexu ahula sexu indartsuari gailendu» zitzaiolako.

XX. MENDEA: GAINBEHERA

Mende bukaera hartan emakume bertsolarien gainbehera hasi zen. Desagertzen hasi ziren, alegia. Edonola ere, XX. mende ha-

sieran baziren baten batzuk, hala nola Joxepa Antoni Aranberri, Xenpelarren familiakoa, edo Plazida Otaño, hura ere bertsolarien familia batekoa eta Txirrita-rekin buruz buru jardun zuena.

Gainbehera hartan eragin zuten faktoreak ugari izan ziren: industrializazioa eta nekazaritza eremuetatik hirira joatea, familia zabala, eta harekin batera transmisioa, desagertzea, euskararen atzerakada eta emakume burgesaren eredu berria. Azken horri lotuta, eskolak ere paper garrantzitsua jokatu omen zuen. Ugaldek gogorarazi zuenez, alfabetatzeko funtzioa betetzeaz gainera, integrazio politikorako eta gizarte kontrolerako tresna ere izan ziren eskolak; Europa osoan bezala, hezkuntza sistemak gobernu liberalen nahia bete eta


burgesia liberalaren balioak transmititzen ahalegindu ziren. Hartara, eskolan «neska desberdinak» izaten ikasi zuten neska-tilek, eta haien hezkuntza ere berezia zen; hezkuntza morala zen garrantzitsuen eta «beren sexu-ari dagozkien» lanak ikasten zituzten. Mutilen hezkuntza eremu publikorako zen; neskena, berriz, etxerako. Eta esandako emakumearen eredu hori etxe-koandarearena zen. Eta eskolaren zeregina izan zen, halaber, herri kultura gainditzea, «arrunkeria» ezabatzea. Gizonezko bertsolarien irudia arlotekeriari eta baldarkeriari lotuta agertzen zen; hortaz, pentsatzekoa da emakume bertsolariena nolakoa izango zen. Horren guztiaren ondorioz, emakume bertsolarien «ezkuta-keta prozesua oso bizkorra izan zen».

Galera haren paradigma Matea Joxepa Zubeldia jarri zuen Ugaldek, zorionez, halako batean «liburuetan kabitu den bertsolaria», Amagoia Mujikak GAUR8n emakume haren gaineko erreportaje batean zioen bezala. Estitxu Eizagirrek haren historia eta zenbait bertso jaso zituen «Bertsoaren haria Hernanin» liburuan. Matea Joxepa Zubeldia, Hernaniko Ibarluze baserrikoa, Madrilera joan zen neska, jaio zen baserriko jabeen etxera. Han ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen. 1904an, senarra oso gaixorik zegoela, Hernanira itzuli ziren eta Matea Joxepak denda bat zabaldu zuen.

Senarra eta zazpi seme alaba aurrera atera zituen, Hernanin beste bi alaba jaio zitzaizkien eta. Haren bertso batzuk baztanga epidemia baten eta hura zela eta Hernanin izandako istiluen lekuko dira. Jendaurrean aritzen zen eta herriko bertsolari batek botatzen zizkion bertsoei etxeko leihotik ematen zien erantzuna. Haren alabak, berriz, lotsatu egiten ziren batere ohikoak ez ziren amaren ohitura haiekin, eta, garai berriko espiritua barneratuta, ama hil zenean haren koaderno guztiak, berak eskuz eginak eta bertsoz eta poemaz beteak, erre egin zituzten.

Emakume bertsolarien historia estalia. Emakumeen historia.

Estitxu Eizagirrerren
«Bertsoaren haria Hernanin»
liburuko «perla handienetakoa»
da Matea Joxepa Zubeldia
bertsolariaren historia.
Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS






Ainara Azpiazu
AXPI

iRRITZIA:

BEROTEGI EFECTUA

ETA ZUBIETAKO MIKROKLIMA BERRIA



ARRISKUA? SOS SAKATU!

Trusted Circles du izena, doako aplikazio bat da eta laguntzeko prest dauden lagunaren sare bat osatzen du

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Andoni Suarez eta Gustavo Iñiguez informatikari bizkaitarrek Trusted Circles aplikazioa sortu dute, arrisku egoeretan laguntza sare bat eratzen duena. Ibilbide bat hastean, aukeratutako kontaktuek kokapenaren berri izango dute, eta, laguntza eskatzekotan, kilometro bateko eremuan dauden erabiltzaile guztiak abisatzen ditu.

Iruña, 2016ko sanferminak. Bost gizonen artean bortxatutako neska baten salaketak iruindarrak kolpatu zituen, Euskal Herri osoa astinduz eta herritarren eta instituzioen erantzun sendoa eraginez. Gertakari latz hark bestelako ondorio batzuk ere izan zituen. Andoni Suarez eta Gus-

tavo Iñiguez informatikarien kasuan, esaterako, aplikazio berri bat sortzeko bultzada izan zen. Segurtasun informatikoan eta programazioan adituak, Iruñean gertatutakoa zeozer egiteko beharraren abiapuntua izan zela diote bi informatikari bizkaitarrek.

«Nazka itzela sentitu genuen. Nola bururatu dakioke horrela-

Andoni Suarez igorreztarra eta Gustavo Iñiguez barakaldarra informatikariak dira, segurtasunean adituak.
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

ko zerbait mutil talde bati? Ez zitzaigun buruan sartzen», gogoratu du Suarezek beraientzat pizgarri izan zen gertakaria oroituz. «Gai horri buelta asko eman genizkion egun haietan...», gaineratu du. Euren pentsamenduetan, inguruan laguntzeko prest egon zitekeen baina ezer egiterik izan ez zuen jende guztia zegoen. «Nola gerta zitekeen horrelako zerbait horrenbeste jende gertu egonda? Ziur handik gertu bat baino gehiago egongo zela neskari laguntza emateko prest...», gaineratu du Iñiguez.

Gogoratzen dutenez, hasieratik oso argi zeukaten «teknikoki zerbait egitea posible» zela. Hala, lehen aplikazio bat garatu zuten, eta, gero, komunikabideen bidez ezagututako kasu ezberdinei erreparatuta, hasierako funtzionamendua hobetzen joan dira, «gauzak gehitzen». Diote, «orain arte jasotako kriti-



kak onak izan dira», baina aplikazioa hobetzeko erabiltzaileek dituzten ideiak «oso baliagarriak» direla uste dute. Horregatik, aurrerantzean ere erabiltzaileen gomendioak jaso nahi lituzkete Trusted Circles aplikazioa hobetzen jarraitzeko.

Bi teknikariek garatutako aplikazioa Android eta iPhone mugikorretan erabil daiteke, eta, orain dela bi hilabetetik dago eskuragarri. Dagoeneko 10.000 deskarga izan ditu, horietako asko Mexikon.


Erabilera simple samar batekin oso baliagarria izan daiteke hainbat kolektiborentzat. Erabiltzaileari ziurtasuna ematen dio eta nolabaiteko babes sare bat eratzea lortzen du. Azken batean, aplikazioa dutenen artean komunitate moduko bat sortzen da, elkarren artean arrisku egoren berri emanez.

ELKARTASUNEAN OINARRITUTA

Sortzaileek nabarmentzen dutenez, elkartasuna da aplikazioaren gakoa. Izan ere, aplikazioaren bidez, arrisku egoera batean laguntzeko prest dauden lagunen komunitate bat era daiteke. Aldi berean, gomendio moduko arau batzuk ere ematen dituzte funtzionamendua egokia izan dadin.

Egoera ezberdinetan jartzea da erabilera ulertzeko modu errazena. Hori da, hain zuzen ere, aplikazioa nola erabili azaltzen duen web orrian erabili duten ereduak, sor daitezkeen galdereri erantzuna emanez.

Demagun etxera itzultzeko bidea hasten duela lagun batek. Behin itzulera hasi duela zehaztuta, aplikazioan dituen gertuko kontaktuek jakinarazpen bat jasoko dute automatikoki. Bidean, balizko eraso baten aurrean egon daitekeela uste badu, erabiltzaileak “SOS” botoia sakatuko du. Horrela, kilometro bat baino gutxiagora dauden aplikazioaren erabiltzaile guztiek arriskuan egon daitekeen lagunaren kokapen zehatza jakinarazten duen mezu bat jasoko dute. Baina ez hori bakarrik, “SOS” botoia sakatuta, abisua kontaktuen telefonoetara helztearekin batera, alarma soinu



Joan den sanferminetan izandako eraso bortitza izan zen proiektuaren metxa piztu zuena. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

bat ere entzuten hasten da, inguruan dagoen jendeari arrisku egoeraren berri emateko.

Aurreikusi dutenez, alarmaren zarata erasotzailea uxatzeko baliagarria izan daiteke, baina beste aukera bat ere ematen du: biktimaengandik gertuen daudenak abisatzeko balio du, eraso saihesten saia baitaitezke. Bidalitako mezua, berri, nork jasotzen du? «Alde batetik, konfiantzazko kontaktuak ditugu. Bertan, gertukoak bakarrik jarri behar ditugu. Ibilbide bat hasten dugun bakoitzean beraiek ohar bat jasoko dute bidean gaudela esanez; gainera, gure kokapena ikusi ahal izango dute mapa batean», azaldu dute.

Elkartasuna aplikazioaren erabilpenaren zutabe nagusiakoa dela nabarmentzen dute bi informatikariek. Azken batean, ezezagunak izan arren laguntza ematera bertaratu baitaitezke kokapenetik gertu dauden erabiltzaileek laguntza eskaera jasotakoan. Trusted Circlesen «balio nagusia» horixe da: laguntza eskatu eta inguruan daudenak ohartarazteko aukera. Suarezek argitu duenez, antzeko aplikazio bat baino gehiago daude, baina «gizartearen elkartasuna erabiltzen duen bakarra da Trusted Circles, hori da besteengandik ezberdintzen gaituena».

HURBIL DAUDENEN LAGUNTZA

Arrisku abisua bidaltzean, konfiantzako kontaktuek eta hurbil dauden guztiek jasoko dute mezua. Hala ere, argitu dutenez, konfiantzazko kontaktuak baino ez dute ibilbide osoa ezagutuko; gainera, ez da beharrezkoa ibilbide bat hastea alarma sakatzeko. Era berean, bidean doan erabiltzaileak mezuak bidal ditzake aldaketak egin baditu.

Funtzionamendua argiago ulertu eta erabilera egoki bat egiteko, laguntzailearen papera inguruan zenbait aholku ere ematen dituzte. Izan ere, erabilera egoki bat ziurtatzeko, egoera ezberdinetan nola erantzun argitzen dute sortzaileek. Horrela, etxerako bidea hasi duen lagun batean kasuan jarrita, ibilbide zuzena jarraitzen ari den

egiaztatzea gomendatzen dute, bidetik irten bada edo puntu batetik mugitu gabe denbora luzea badarama arreta berezia jartzeko eskatuz. Horrelako egoeren aurrean, erabiltzaileari deitza gomendatzen da onik den argitzeko. Telefonoa hartzen ez badu, larrialdi zerbitzuetara deitza gomendatzen dute, biktima izan litekeenaren telefonoa eman eta kokapena zehaztuz, etxera itzultzean zerbait gertatu ahal izan zaiola azalduz.

Arrisku egoera batean egon daitekeen lagunaren kasuan jartzeko ariketa ere proposatzen dute aplikazioa garatu duten informatikariek. Galdera logikoa da: noiz aktibatu "SOS" botoia. Arrisku egoera garbia bada, ez dago zalantzarik, baina batzuetan arinegi jokatzeko ari garen inpresioa sor daiteke.


ALERTA NOIZ AKTIBATU

Gomendatzen dutenez, segurtasun eza sentitzen den unean botoia sakatzea da egokiena. Izan ere, nabarmentzen dutenez, «hobe da beharrezkoa ez den alerta bat aktibatzerara heltzen ez dena baino». Arriskurik ez dagoela argitzen bada, beti dago alarma gelditzeko aukera; hala, us-tezko biktimaren kokapena jaso duten guztiek mezu berri bat jasoko dute jada arriskuan ez dagoela esanez eta ez dutela ezer egin behar ohartarazteko.

Baina, zer egin behar da norbait arriskuan dela esanez ohar bat jasotzean? Gomendioa da ahal izanez gero beste norbait bilatzea zehaztutako kokapenera elkarrekin joateko, eta, lekura gerturatzean, zerbait gertatzen ari dela ikustekotan, lehendabizi larrialdi zerbitzuei deitza.

Trusted Circles aplikazioa orain dela pare bat hilabete jarri zuten eskuragai, dohainik. Sortzaileek nabarmendu dutenez, jada 10.000 deskarga izan ditu, horietako asko Mexikon

Informatikari bizkaitarrek diotenez, «hobe da beharrezkoa ez den alerta bat aktibatzerara heltzen ez dena baino». Arriskurik ez dela argitzean, beti dago alarma gelditzeko aukera



Behin zerbitzuok ohartarazita, «saiatu erasotzailea uxatzen, oi-hu egizu polizia bidean dela esanez, eta, ahal izanez gero, telefono mugikorrarekin grabatu, betiere distantzia bat mantenduz eta gure burua arriskuan jarri gabe», azaltzen dute. Nabarmentzen dute oso garrantzitsua dela arrisku bizian ez jartzea eta kontuan hartzea erasotzaileari

Trusted Circles doako aplikazioa da. Dagoeneko 10.000 deskarga izan ditu, horietako asko Mexikon. Marisol RAMIREZ | ARP

eraso eginez gero berak jar deza-keela salaketa eta ondorio larriak izan ditzakeen zigor prozesu bat eragin.

Beste egoera batzuk ere sor daitezke. Zer gertatzen da alarma probokatzen duen pertsona bagara? Azaltzen dutenez, gerta daiteke kaletik norbaiten atzetik joatea eta lagun horrek gu mehatxutzat hartzea. Kasu horretan «ezin dugu zerbait pertsona-lalitz bezala hartu», eta, era berean, ez da gomendagarria azalpenak ematen saiatzea. Egoera horretan, «espaloitik aldatzea bezalako keinu simple bat edo gure abiada jaistea nahikoa da pertsona hori seguruago sentitu eta alarma gelditzeko».

DOHAINTZAK

Trusted Circles aplikazioa doakoa eta askea da, eta horrela mantendu nahi dute sortzaile-

ek. Hala ere, erabiltzaile kopuruaren igoerak «ondorio ekonomikoak» eragin dizkie pentsatu baino arinago. Zerbitzariei ordaindu beharrezkoa da gastu nagusia. Horregatik, dohaintza kanpaina bat jarri dute martxan, proiektuan sinesten duen jendeari zuzendutakoa. «Edozein dohaintza, txikia bada ere, lagungarria izango da aurrera egiteko», diote informatikariek.

Hala ere, egindako dohaintzak 5.000 euroko kopurua gainditzen badu, «gure helburua dirua irabaztea ez denez», jasotakoaren %10 arlo ezberdinetan indarkeriaren kontra borrokatzen duten elkartei emateko konpromisoa agertu dute.

KONTZIENTZIA SORTZEN LAGUNDU

Suarezek azaldu duenez, «instituzio batzuek» badute jada aplikazioaren berri, beraiekin «harremanetan» jarri direlako. «Momentuz ezin da ezer dagoenik esan, baina behintzat lehen urratsa emanda dago eta badakigu gutxienez auzia eztabaidatu egingo dutela», aipatu dute.

Era berean, mundu mailan talde ezberdinekin jarri dira kontaktuan, feministak, LGTB kolektiboen eskubideen defentsan aritzen direnak... «Orain artean harrera ona aurkitu dugu, lagungarri ikusten dute aplikazioa», gaineratu du Inñiguezek.

Informatikari bizkaitarren us-tez, mehatxupear ia edonor egon badaiteke ere, kolektibo zehatz batzuek topa dezakete bereziki lagungarri aplikazio berria. Diotenez, oraindik mehatxupear den inor ez da haiekin harremanetan jarri, baina gertu egoera ezberdinak ezagutu dituzte, eta argi dute arrazoi ezberdinengatik erasoak jasateko arriskua izan dezaketen lagun asko daudela.

Ildo horretan, gogoan dute Valentzian lagun batek jasotako erasoak. «Esbastika bat egin zioten aurpegian homosexuala zelako», salatu dute, eta gaineratu dute euren asmoa ez dela aplikazioa egitea bakarrik, «baizik eta kontzientzia sozial bat sortzen laguntzea ere, nahiz eta momentuz aplikazioak denbora guztia kentzen digun».

**Arantxa Urbe**

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Erratzeak duen balioaz

Zer eratako ikasleak nahiago ote ditu Hezkuntza Sistemak? Zer ikasle mota ote dugu begikoen hezitzaileok? Akatsik egin gabe zuzen-zuzen, azkar eta ongi ari diren ikasleak ala akatsak egin eta haietatik ikasten dutenak? Akatsak, erroreak, hanka sartzeak... horiek bilakatu dira, akaso, ikasleak bere heziketa prozesuan nola edo hala lehen saihestu beharrekoak. Neurri handian, maiz, horiek epaitu edo baloratuko dutelako bere lana eta ahalegina.

Ikus daitezke gero eta neska-mutil txikiagoak, ongi ez egitearen susmo ñimiñoena hartu eta ezertan ere hasi nahi ez dutenak, gaizki egingo duten beldurrez edo ustez. Gero eta sarriago, gero eta gazteago.

Bestalde, zerikusia izango du arrakastarako bidean akatsik ez egitea dela giltzarria ideian, era kontzientean edo inkontzientean, zabaltzen ari garen mezua: arrakasta izateko gauzak lehenengotik eta ongi egin behar dira.

Duela hilabete batzuk ipuingintzako ikastaro batean Yolanda Arrieta idazlea umorez aritu zitzaigun esaten estatubatuarrek dena lortua dutela: «nola ikasi ingelera 20 orduetan», «nola argaldu bi astetan», «nola izan zoriontsu 10 urratsetan» eta antzeko formulekin. Ez ote gara ari ideia hori Hezkuntza Sistemara inportatzen eta gure neska-mutilei erakusten dena lehenengotik egin behar dela? Ez ote da Hezkuntza Sistemaren eskakizun bihurtzen ari guztia lehenengotik eta ongi egitea? Horrela egiten dutenak direla ikasle perfektuak?

Heziguneetan lekurik eta denborarik gabe utzi ditugu zirriborroak. Hasierako ideia landu, aldatu, osatu edo abandonatu daitekeen territorioa den zirriborroa. Sormenak eta hainbeste aipatzen dugun ekintzailtzak, ordea, zirriborroak behar ditu: probatu egin behar da, malgua izan, berraztertut, berriro hasi. Lanari kasu egin behar zaio, azken batean. Jakina da, baina, sormena lantzeko probatu egin behar dela, eta ekintzaile izateko arriskatu.

Psikologia azterketek frogatu dute okertzea ezinbestekoa dela ikasketa prozesuan. Cesar San Juan EHUKo psikologia irakaslearen arabera (Bilbo, 1963), “saiakera-akatsa” dikotomian oinarritutako ikasketa askoz eraginkorragoa da memoriarentzat saiakerak akatsik gabe egiten ditugunean baino. «Hanka sartu behar dugu ikasteko, galdu egin behar dugu motibatzeko».

Tomas Alva Edison estatu-batuarrak ere balioa eman

zion erratzeari. Bonbilla asmatzen ari zela, saiakera franko egin behar izan zituen wolfram haria baliatuta argia egitea lortu zuen arte. Haren laguntzaileek galdetu ziotenean hainbeste aldiz erratzea ez ote zitzaion etsigarria, hark erantzun omen zien ordura arte bonbilla ez egiteko mila modu asmatu zituela.

Akatsei neurriz gaindiko beldurra izateak ere ondorio latzak ekar ditzakeela dio, berriz, Agustin Arrieta EHUKo filosofoak (Errenteria, Gipuzkoa, 1962): «Segur aski, emaitza paralisia da. Ez genuke ezer ere egingo».

Aditu askoren iritziz okerra da akatsak egiteari buruz jendar-tean dagoen ideia. Pentsatzen da porrot egiten duena ez dela gai gauzak egiteko. Ideia justu kontrakoa da. Haien iritziz, saiatzen denak ikasten du, eta, berriro aukera duenean, hura izango da hobeto egiteko gai izango dena.

Ba omen da porrotari beldurra galtzearen aldeko filosofia. Porrota ezagutu ez duenak nahikoa anbizioz jokatu ez duelako izan dela, eta ezinbesteko baldintza gisa ulertzen dute porrot egitea arrakasta lortzeko bidean. Izan ere, beste begirada bat eskaintzen dizu, beste egiteko modu bat.

Aspaldiko esaera da “ez denak ekibokatzen ez du deus asmatzen”. Horri segika, akatsa aukera gisa ikusi beharko genuke, gauzak berriro egiteko, hobeto egiteko.

Hezkuntzara itzulita, zertan uzten ote dugu ahalegin handiena: akatsik ez egiten irakasten ala hutsegite horietatik –egin egingo baitituzte, ezinbestez–, ondorioak atera, haietatik ikasi eta berriro saiatzen?

Ikus genezake akatsa aukera gisa, gauzak hobetzeko aukera gisa, akatsak izan baduelako alde emankorra. Lehenengotik asmatu duenak amaitu du saiakera... ez denak ekibokatzen ez du deus asmatzen! •



Psikologoez nabarmendu bezala, hanka sartu behar dugu ikasteko, galdu egin behar dugu motibatzeko.

GAUR8

{ koaderno } Laura Mintegi

«Teachers, you are a brick in the wall»

Pink Floyd-ek 1979an abesten zuen irakasleak adreilu bat gehiago baino ez direla haurrak hezteko (hesitzeko?) gizarteak eraikitzen duen horman. «Hey! Teachers, you're just another brick in the wall». Familiaren ostean, eskola da haurrak sozializatzeko makinariarik sofistikatuena. “Sozializatu” hitzak baditu bi adiera, ezberdinak eta kontrajarriak diren adierak. Batetik gizarteratu esan nahi du, hau da, sozializazioak gizarte harremanak sortu eta errazten ditu. Baina, bestetik, sozializatzea da indibiduoa komunitate baten arauetara moldatzea, egokitzea, haren mendekoa izatea.

Familia eta eskola, eskola eta familia. Bi eremu horietan haurrak ikasten du zer egin eta zer ez; nola esan eta nola ez esan; zer saritzen den eta zer zigortu. Gizarte autoritarioetan familiak eta eskolak berdintzen dute ezberdina dena, homogeneizatu egiten dute, uniformatu, parekatu, asimilatu.

Zenbat eta askeagoa izan gizarte, ordea, eskola bera ere are eta anitzagoa da, askotarikoa, berealdikoa. Eskolak apurka-apurka ikasi du norbanakoa errespetatzen. Eta errespetuak berezkoa du ezagutzea pertsona guztiak ez direla igualak. Eta igualak ez baldin badira, ezin dira hezi modu berean. Heziketa ez da hesian ixtea.

Maiatzaren 16rako eta 23rako Euskal Autonomia Elkarte hezkuntza publiko ez-unibertsitarioan deitutako greba deialdietan ez daude bakarrik irakasleak. Hezkuntza bereziko hezitzaileak ere atera dira kalera, eta hezitzaileok ezinbestekoak dira, hain zuzen, ikasle guztiak modu berean ez hezteko eta premia bereziak dituzten haurrak aintzat hartzeko. Terapeuta okupazionalak, dira, fisioterapeutak, zeinu hizkuntzako interpreteak, transkribatzaileak, hezkuntza laguntzako espezialistak. Langile horiek dira eskola inklusiboa kalitatezkoa izan dadin ahalbidetu dezaketen profesionalak. Gelako irakasleek ezin izango lituzkete atenditu premia berezia dituzten ikasleak, pertsonon laguntza eduki ezean.

Lehen greba egunaren bezperan prentsa-artikulua eman zuten argitara Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Bertan esaten zuten beren lan-baldintzak oso eskasak direla. Behin-behinekotasuna %58koa dela, eta, ondorioz, 5etik 3k ez duela kontratu iraunkorrik. Lanaldi bukazezinak salatzen zituzten, lan zama handia, erdi mailako teknikarien soldata homologatu gabe dutela, koordinatzeko oztopoak dituztela, eta ez dituztela aitortuta lanagatik sortutako gaixotasunak. Informazioa osatzeko zioten oraindik 2003ko hitzarmenarekin ari direla. Beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, osasungintzan esaterako, lan baldintza txarrak izan arren, egunero-egunero ekiten diote lanari bokazioz eta dedikazioz, sentsiblea baita oso eskuen artean duten “langaia”: beharrian bereziak dituzten haurrak, hurkoak

Familia eta eskola, eskola eta familia.
Bi eremu horietan haurrak ikasten du zer egin eta zer ez; nola esan eta nola ez esan; zer saritzen den eta zer zigortu. Gizarte autoritarioetan familiak eta eskolak berdintzen dute ezberdina dena

baino zaurgarriagoak, ahulagoak, babes-behar handiagoak dituztenak.

Eskola horma da, oraindik ere. Sozializatu egiten du, homologatu, berdindu. Eskolak ezarri egiten ditu arauak, kanonaren ezaugarriak, ereduak. Horren arabera neurtuko da zer den “normala” eta zer “anormala”, eskola normagilea delako. Horrexegatik da hain garrantzitsua eskolan bertan kontuan hartzea normatik kanpo dauden horiek guztiak. Eta pertsona horiez bereziki arduratzen diren profesionalek zirrikituak zirriborratzen dituzte adreiluen artean, arnaguneak sortzen dituzte horman, eskolaren makinariak horma bertikala eraikitzen duen bitartean.

Langileok sinatu duten artikulua ikusteak poztu egin nau. Sinatzaile guztiak emakumeak dira, *portzierto*, eta pentsatu nahi nuke ez dela kasualitatea. •

«Marinorekin konparatzeak poz handia ematen dit, baina kirol mailan ez gara parekoak»

Aurreko astean Amets Txurru-
kak (Etxebarria,
1982) txirrindu-
laritza profesio-
nolari agur esan
eta zortzi urte zituela Markina-
Xemeinen hasitako bidea buka-
tu zuen. Bere ibilbidearen erre-
pasoa egin du GAUR8rekin.
Erorketak eta lesioak tarteko,
hamaika urte eman ditu profe-
sionaletan. 2006an Barloworl-
dekin debutatu zuen eta hu-
rrongo urtean, bere lehen
Tourrean, podiuma ezagutu
zuen. Espero ez zuenean Euskal-
telekin ez jarraitzea kolpe latza
izan zen; Caja Ruralekin lortuta-
ko garaipenak, berriz, une gozo-
ak. Azken urtea Orican egin du.
Etorkizun hurbilean, bederatzi
hilabeteko Nahia alaba da bere
erronka nagusia, aitaren agu-
rraz gehien poztuko dena.

Zergatik erabaki duzu txirrindularitza profesionalari publikoki orain agur esatea?

Iazko denboraldia eta neguko denboraldia bukatu zirenetik denbora bat pasa denean, zaleei azalpen bat emateko beharra ikusten nuen. Jende asko eduki dut galdezka, baina ez nuen ari-negi ibili nahi eta azkarregi esan erretiratu egingo nintzela, eta gero damutu. Tarte bat hartu dut. Tarte horretan alde positi-boak eta negatiboak, nire egoe-ra, txirrindularitzarena eta bes-te gauza asko baloratu ditut, eta, dena ondo pentsatu ondoren, orain erabaki dut publiko egitea.

Urtea normal hasi zenuen entrenatzen, talde baten zain jarraitzeko asmoarekin, ezta?


Bai. Hasieran ondo entrenatzen hasi nintzen, baina, denbora aurrera joan ahala, gero eta aukera gutxiago zeudela ikusten nuen. Zalantza asko izan ditut, baita arazo fisiko batzuk ere, eta zein mailara iritsiko ote nintzen kezka nuen. Horri guztiari batu zitzaion, gainera, nengoen egoera.

AMETS TXURRUKA

TXIRRINDULARIA

Marino Lejarretak bere garaipen handiena euskal zaletuen maitasuna lortzea izan zela zioen. Amets Txurrukarentzat ere segur aski hori da bere markarik onena.

Joseba Iturria



Dena balantzan jarri eta egokie-na orain arteko lana ontzat eman eta horrekin bideari buka-
era jartzea izango dela onena pentsatu dut.

Izan dira urtebete lehiatu gabe eman ondoren gero bueltatu diren txirrindulariak.

Hori ez dut baloratu. Azkenean baloratu dudana izan da maila bat izan dudala –handiagoa edo txikiagoa– eta ez nuela jarraitzeagatik nire mailaren azpitik arrastaka ibili nahi. Nahiago dut maila on batekin utzi. Urte bat geldirik egon, bueltatu eta nire maila eman ezinda aritzea ez da trago erraza. Profesional mailan exigentzia handia dago. Hori ezin baduzu eman, hobe da uztea. Jarraituko dut bizikletarekin disfrutatzen, baina beste era batera; zaletasun moduan, kirola egiten... baina ez profesional mailako exigentzia horrekin.

Jende asko triste dago zure agurrarekin. Gaur egun euskal zaletuen artean txirrindularirik maitatuenetakoa zara. Askok Marino Lejarretarekin konparatzen zaituzte...

Konparazio hori ezin da egin. Nik uste dut Marino oso handia izan dela, eta, niretzat, pertsonalki, idolo bat izan da beti, umetatik. Nire logelan Marino-ren posterra neukan. Oso gertuko sentitu dut, Berrizkoa izanik, harremana baitaukat berarekin. Marino are handiagoa egin duena jendearengana nola heldu den izan da, nola maitatu duen jendeak. Batez ere txirrindulari handia izateaz gain, pertsona umila eta gertukoa delako.

Marinorekin antzekotasuna topatu izanak poz handia ematen dit, baina nik uste dut kirol mailari dagokionez nire ibilbideak ez duela harenarekin zeri-kusirik, palmares ikaragarria du Marinok. Beti da polita konparazio hori egitea eta nire aldetik izugarri eskertzen dut jendeak benetan estimatzea eta maitasun hori sentitzea.

Nola eta noiztik sentitu duzu maitasun hori?

Betidanik sentitu dut; txirrindularitzan nabilenetik, zaletuen al-

detik beti nabaritu izan dut. Ni naizen modukoa izan naiz, bai lasterketetan eta baita lasterketetatik kanpo ere. Jendeak hori ikusi du; pertsona normal bat, beraien moduko pertsona xumea eta akaso horregatik gertuko ikusi naute. Agian hori izan daiteke arrazoia. Lehiatzeko modua eta lortu ditudan emaitzak ez dira izan maila handiko txirrindularia naizelako, lanaren eta sufrimenduaren ondorio baizik. Agian jendea identifikatuta senti daiteke sufrimendu eta lehiakortasun horrekin.


Lehiatzeko zure modua ere hor dago; beti erasoan, lehenengo Tour hartan bezala...

Bai. Azkenean nik gustuko izan dudana txirrindularitza hori da, kontziente nintzelako bukaera itxaronez gero, aukera gutxi izango nuela. Lasterketa batzuetan eta sasoi onenean egonda, akaso hobe zen une batzuetan itxarotea, baina gustuko dudana txirrindularitza egin dut. Nik gozatu egin dut eta nirekin batera zaletuek gozatu badute, asko pozten naiz.

Nola hasi zinen txirrindularitzan eta nola joan zinen etapak gainditzen?

Umetan, herri inguruan, denok bezala. Gogoratzen naiz Markinako Txirrindulari Elkartean zortzi urterekin hasi nintzela, bederatzi egiteko, eta detaile polita izan zuten; haiek utzitako bizikleta batekin hasi bainintzen. Ez neukan errepideko bizikletarik, utzi egin zidaten eta hemen inguruan ez zegoenez nire adineko txirrindularirik, urte bat zaharragoekin lehiatzen nintzen. Haiek baino itzuli bat edo bi lehenago bukatzen nuen.

Eskoletako karrerak lasterketak ziren, baina adin horretan lehiaketaren kutsu larregi gabe, kirolarekin gozatzea helburu. Kadete eta jubenil mailetan hasten zara benetako txirrindularitza ezagutzen. Gustuko nuen. Nire anaia eta arreba ere bizikletan ibiltzen ziren eta etxean zaletasuna zegoen. Hor hasten da txirrindularitzarekiko dudana maitasuna eta pasioa.



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Amateur mailan asko aldatzen da, exijentzia handiagoa da. Jubeniletan asko zaindu gabe lasterketak irabaz daitezke, baina afizionatuetan ondo entrenatu behar da, zaindu egin behar zara eta gauza asko alde batera utzi behar dituzu. Ez da erraza. Ikasketek exijentzia gehiago daukate, entrenamenduek ere bai, denbora libre gutxiago daukazu eta ikusten duzu lagunak parrandara, mendira edo asteburua pasatzera doazela eta erabaki egin behar da: aurrera segi edo tentagarriak diren beste gauza horiek egin lagunekin. Nik benetan txirrindulari izan nahi nuen, asko gustatzen zitzaidan eta apustua egin nuen. Baina txirrindulari izateko gauza horiek denak sakrifikatu egin behar dira.

Hori izan zen nire erabakia eta apustua: ikasketak eta entrenamenduak uztartzea. Ez zen garai erraza izan. Nire gaztaroa agian ez nuen erabat disfrutatu, baina sakrifizio horiek emaitzak eman dituzte eta ez naiz damu-

tzen hori egin izanaz. Erraza ez den adin horretan dauden gatzetxoei mezu hori luzatu nahiko nieke: Ikasketak alde batera utzi gabe kirolean ere beraien onena emateko ahalegina egiteko.

Ez zara inoiz garaile handia izan, baina arraroa da Olarra taldean aritu ondoren Euskaltelera pasatu ez izana, filiala zelako.

Jubeniletan esprintean nahiko ondo aritzen nintzen eta talde txikietan lasterketak irabazten nituen. Baina afizionatu mailan ez naiz garaile izan; erregularra bai, beti lehen hamarren artean. Beti kostatu izan zait irabaztea, abiadura hori falta izan zait eta garaipen askorik ez dut lortu.

Lehenengo urtea Lekeitiale taldean egin nuen eta gero Olarrara pasatu nintzen. Hor lau urte egin nituen, baina ia urte bat osorik galdu nuen femurreko lesio batengatik. Markinan bertan entrenatzen ari nintzela aldapa bat jaisten auto baten

IBILBIDEA

Markina-Xemeinen zortzi urte zituela hasi zen herriko taldeak utzitako bizikletarekin. Amateur mailan Lekeitiale, Olarra eta Debabarrena taldeetan aritu ondoren, Barloworld taldearekin pasa zen 2006an maila profesionalera. Hortik aurrera, Euskaltel (2007-12), Caja Rural (2013-15) eta Orica (2016) taldeetan aritu da.

kontra istripua izan nuen. Lasterketak egiten nituen, baina maila errekuuperatzeko ia urtebete behar izan nuen eta progresio hori moztuta gelditu zen. Akaso horregatik Olarrarekin ez zidaten pasatzeko aukerarik eman. Azkeneko urtean, Debabarrenarekin –etxetik gertu neukan taldea izanik– nire buruari azkeneko aukera ematea erabaki nuen eta oso urte ona atera zen. Bi garaipen eta lehen hamarren artean postu mordo bat lortu nituen. Euskaltelen aukera aztertzen egon ginen, baina ezin izan nuen beraiekin pasa eta Barloworld taldeak eman zidan aukera aprobetxatu nuen.

Eibarko Juanjo Sebastian zuzendariak eta Anton Ormaetxeak lagundu zidaten, kontaktuak zituztelako Italian. Igor Astarloa eta Peio Arreitunandia ere bertan zeuden, elkar ezagutzen genuen eta beraiek ere lagundu zidaten. Batzuei eta besteei esker aukera sortu zitzaidan eta eskertzen dut.

Debut polita izan zenuen 2006an Barloworldekin, ezta?

Oso urte ona izan zen. Italia aldean lasterketa dezente egin nituen lehen hamarretan; Euskal Bizikletan bederatzigarren egin nuen eta Pello Arreitunaindiak, laugarren... emaitza politak. Asturiaseko Itzulia eta Portugaleko Volta ere egin genituen... Oro har lasterketa dezente osatu genituen eta maila txukuna eman genuen. Oso konforme nago urte horretan egindakorekin. Balantze positiboa. Eta, ondorioz, Euskaltelera pasatu nintzen, orduan bai.

Froomekin ez zinen egon Barloworlden, ezta?

Ni Euskaltelera etorri nintzen urtean sartu zen bera Barloworld taldean. Baina nire lehen Tourrean –Euskaltelekin joan nintzen– lotura estua neukan oraindik Barloworldeko lagunekin eta zuzendariak honakoa esan zidaten: «Begiratu mutil horri, oso gaztea da baina oso ona izango da. Erreparatu». Erreparatu nion pixka bat eta urte batzuetara begira nora iritsi den...

Euskaltelen (2007-2012) txirrindulari euskaldun batentzat bizi daitekeen proiekturik politena ezagutu zenuen.

Proiektu hori oso polita izan da eta batez ere orain baloratzen dugu, ez daukagunean. Agian momentuan ikusten genuen talde bat, talde polita, gure taldea, baina ez genuen baloratzen hainbeste eta orain, zer eduki dugun ikusten dugunean, faltan sumatzen dugu.

Baina nire kasuan, adibidez, ez nuen izan aukera Euskaltelera zuzenean pasatzeko, nahiz eta afizionatuetan ondo ibili, eta beste proiektu batek eman zidan aukera. Barloworld taldeak. Oso proiektu ezberdina zen, baina oso aberasgarria, mundu guztiko jendea biltzen zuelako. Gero Euskaltel-Euskadira itzultzea oso polita izan zen, eta, batez ere, bertako txirrindulariekin munduko lasterketarik onenak lehiatu ahal izatea zoragarria izan da. Ea zorte pixka ba-



tekin aurrerantzean aukera hori berriro dagoen.

Ez zenuen zortetik izan erorke- tekin Euskaltelekin. Tourrean hiru aldiz jarraian lepaupatua hautsi zenuen.

Guztira sei edo izan dira, kontua galduta daukat egia esan. Lehenengo Tourra oso ondo irten zen eta hortik aurrera urtero sasoi fisikoz oso ondo bueltatzen nintzen, baina ez dut zortetik eduki. Fisikoki ongien egoten nintzen momentuan lepaupatua apurtuta bueltatzen nintzen etxera. Hutsetik hasia gogorra da eta horrek ere badauka pisua erabaki honetan. Beti oztopoak gainditzen nekatu egiten zara.

2007an Tourrean bikain debutatu eta podiumean bukatu zenuen Lehiakortasunaren Saria jasota. Ematen zuen zure lasterketa zela, baina hortik aurrera beti aurpegi txarra erabakutsi zizun lasterketa horrek... Alde biak. Lehenengoz joan eta kasik espero barik guztia eman zidan, eta, gero, handik aurrera, alderantziz. Kendu edo ilusio guztiarekin joan eta belarrondo-ko bat bestearen atzetik, eta etxera buelta dezenteko kolpearekin. Baina horrela suertatu da. Alde ona eta txarra ikusi dituda- la esan daiteke.

Tourra gorrotatzera iritsi zara? Ez, gorrotorik ez. Askok eman dit. Txirrindularitzan zeozer izan baina, parte handia Tourrak eman didalako izan da. Baina egia da

behin baino gehiagotan eskatu nuela Euskaltelen Tourrera ez joatea, nahiago nituela Giroa eta Vuelta. Eta beti Tourrera eramaten ninduten. Esaten zidaten nire lasterketa zela, derrigorrezkoa nintzela taldearentzat.

Lepaupatua hainbestetan apurtu ondoren ez dut gorrotorik sentitu, baina bai beldurra eta errespetua. Hainbeste lesio- ren ondoren lasterketa hori alde batera uzteko gogoia ere eduki nuen. Baina, beste aldetik, lehenengo urtean Tourrak mundu mailan ezagun egin ninduen. Parisen podium hartan egon ahal izatea gero eta gehiago baloratzen dut denbora aurrera joan ahala. Orain konturatzen naiz nolako balioa duen argazki hori etxean edukitzeak.

Azkeneko urtean, 2012an, Euskaltelek Girora, Tourrera eta Vueltara eraman ondoren jarraitzeko aukerarik ez ematea izan al da txirrindularitzan jaso duzun kolperik handiena?

Ulertzeko zaila izan den erabaki bat izan da; bai niretzat eta baita zaletuentzat ere. Urte berean Girora, Tourrera eta Vueltara eraman ninduten. Planifikazioan ez neukan hori, baina beraien ahotik jaso nuen ezinbestekoa nintzela taldean. Tourrean ni bezalakoak ez zeudela eta hara joan behar nintzela. Tourra lehiatzen ari gine- la entzun nuen egoteko lasai, hurrengo urtean edukiko nuela jarraitzeko aukera. Vueltara joan eta han berdin. «Zuk egin la-



«Euskalteletik deitu zidaten taldean jarraitzeko aukerarik ez nuela izango esanez, eta erabat ulertezina egin zitzaidan erabaki hori. Une txarra pasatu nuen, bai nik eta bai zaletuek»

na besteentzako, taldean jarrai- pena izango duzula...».

Irailean deitu zidaten taldean jarraitzeko aukerarik ez nuela izango esanez, eta erabat ulertezina egin zitzaidan erabaki hori. Une txarra pasatu nuen, bai nik eta bai zaletuek, baina bizitzak buelta asko ematen ditu. Aldake- ta horrek beste bide batzuk za- baldu zizkidan eta agian nire me- sederako izan zen. Caja Ruralen beste aukera batzuk eduki ni- tuen; hiru urte oso politak eman nituen han, beste bat Orican... Beste bide batetik joan nintzen. Bizitzan horrelako egoerak dau- de; horrela gertatu zen eta horre- la hartu beharra neukan. Handik aurrera, beste garai bat sortu zen eta hura ere polita izan zen.

Filosofia aldaketak Euskalte- len desagerpenean eragina izan al zuen?

Ez dakit zein izan zen arrazoia, baina egia da ordura arte eta urte askoan garaipen onak eta gauza asko lortu zirela, eta, bat- batean, aldaketa horren ondo- tik, dena pikutara joan zen. De- na okertu egin zen eta denbora gutxian proiektu handi hura be- heratu etorri zen. Zerbait txarto egin zela garbi dago behintzat.

Caja Ruralen (2013-2015) garai- pen garrantzitsuak lortu zenuen hiru urtez segidan...

Hainbat urtetan ibili nintzen lehian eta onartua nuen kirol ibilbidea garaipenik gabe utzi beharko nuela. Konbentzitu- nengoan eta latza da, baina txi-

rrindulari asko egon dira garai- penik lortu ez duten arren ibil- bide polita egin dutenak.

Onartuta neukan eta Caja Ru- ralera joan eta lehenengo garai- pena Asturiaseko Itzulian lortu nuen. Eta haren ondoren beste- ak etorri ziren. Lasterketetan ni- re aukerak baliatzeko beste as- katasun bat neukan. Hori baliatu nuen eta etapa oso poli- ta izan zen.

Liderra zinen baina nahiago izan zenuen World Tourrera bueltatzea. Orica taldean beste- entzat lan egitea erabaki ze- nuen.

Bai eta nik beti esan izan dut li- der bati laguntzea oso polita de- la. Askok betetzen nau pertsona moduan beste bati laguntzeak. Lagun batek garaipena lortzen bazuen, nik irabaziko banu be- zala sentitzen nuen. Poztu egi- ten ninduen beste lagun bati irabazten laguntzeak.

Oricaren planteamendua hori zen; Esteban Chavesi itzuli han- dietan laguntzea. Girora joan gi- nen eta nire eta beste taldekide- en laguntzarekin berak etapa garaipen bat lortu zuen, baita sailkapen nagusian bigarren bu- katzea ere. Oso polita izan zen. Garbi neukan ez zela ezinbeste- koa nik garaipenak lortzea. Bes- te batentzat lan egin eta hori es- kertzen badidate, ni pozik nago horrekin. Ez nuen zalantzarik izan Oricara joateko.

Sorpresa izan zen Oricak aur- ten taldean jarraitzeko aukera-



rik ez ematea. Vueltatik kanpo gelditu aurretik, zalantzak al zeneuzkan?

Orican lehiatzeko modua eta talde barruan nik neukan rola asko aldatu ziren, baina gustuko nuen lan hori. Beraiek ere oso gustura zeudela esaten zuten. Zailtasunak eduki nituen denboraldian zehar, ez zen atera nik nahi nuen bezala. Giroan ondo nengoela gaixotu egin nintzen eta nire mailaz azpitik ibili, baina, halere, taldekideentzako lanean gustura ibili nintzen. Pentsatzen nuen beste urtebete jarraitzeko aukera izango nuela.

Baina Vueltara joateko aukera zalantzan jarri zuten, ikusiko zutela esan zuten eta kezkatzen hasi nintzen. Vueltatik kanpo geratzen nintzela esan zutenean ja itxura hartu nion kanpoan geldituko nintzela. Urte bukaeran konfirmatu zidaten ez zutela nirekin kontatzen. Vueltatik kanpo gelditu ondoren, aukera gutxi neukala ikusi nuen.

Orain arte Orica taldeak ez zeukan itzuli handiak lehiatzeko txirrindularirik. Orain, hiru lider ditu eta haiei laguntzeko eskalatzaileak behar dira. Horretarako fitxatu zintuzten zu eta arraroa da zure profileko txirrindulari batek ez jarraitzea, ezta?

Taldea asko aldatzen ari da. Lehen klasikoetan eta etapa soiletan zentratzen ziren eta orain baita itzuli handietan ere. Jende gaztea oso fuerte dator. Yates anaiak, Chaves eta Australiako

igotzaile oso onak: Jack Haig, Robert Power... Verona gaztea izanik hor sartu da... Jende gaztearen aldeko apustua egin dute eta azkenean euren erabakia onartzekoa da.

Pentsatu izan al duzu Caja Ruralen jarraituz gero hor egongo zinela oraindik. Damutu al zara erabaki hori hartzeaz?

Ondo nengoen eta erosoena bertan geratzea zen, baina erabakiak hartu egin behar dira uneak heltzen direnean eta une horretan Oricara joateko erabakia hartu nuen. Damurik ez daukat, une horretan erabaki hoberena zela uste nuen. Gauzak atera diren bezala atera dira, baina atzera begiratu eta ez naiz damutzen. Beste era batera eginda ezberdina izango zen agian, baina akaso hoberako edo txarrerako. Momentu bakoitzean hartzen ditut erabakiak ondo pentsatuta eta gero horrekin aurrera egin behar da.

Oricatik kanpo gelditu ondoren, Eugenio Goikoetxea Caja Rural taldeko zuzendariak esan zuen talde erdiak baino maila handiagoa zenuela, baina ezin zintuela berriro fitxatu. Zaletuentzako ulertzeko zaila da.

Txirrindularitza barrutik eza gututa, badaude ulertzen zailak diren gauza asko. Kirol maila gauza bat da, baina beste interes asko ere badaude. Azkenean konturatu naiz ez dela bakarrik norberak daukan maila edo ba-

«Ondo nengoen eta erosoena Caja Ruralen geratzea zen, baina Oricara joateko erabakia hartu nuen. Damurik ez daukat, une horretan erabaki hoberena zela uste nuen»



koitzak jartzen duena. Txirrindularitza beti maiteko dut, baina egia da kirol bat profesionale denean gauzak asko aldatzen direla eta horrek ere erre egin nau. Erre naute nire zailtasun fisikoek, lesioek, oztopoek... Baina baita kirol profesionalean ikusten diren zenbait interesek ere. Kirola polita da kirola denean, baina, maila profesionalera iristen denean, tartean interes asko daude eta xarma hori galdu egiten du.

Orokorrean zer nabarmenduko zenuke zure ibilbidean?

Positiboena zaletuen maitasuna sentitzea, jendeak une oro nola babestu nauen ikustea. Eskertzekoa da. Garaipen pertsonalak eta taldekideenak oso pozgarriak dira, baina ez garaipenak bakarrik. Batzuetan, nahiz eta garaipenik lortu ez, lana ondo egin izanaren aletasuna daukazu. Eta tropelean egin ditudan laguntasunak ere oso positiboak izan dira. Txirrindularitzak gauza on asko eman dizkit.

Bestalde, negatiboak ere asko daude. Sufrimendu asko, egunero konstantzia handia eta exigentzia maila handia. Eta maila hori mantentzeko, dena eman behar duzu eta gauza asko alde batera utzi. Hori gogorra da. Baina, nire kasuan, gogorrena lesioak izan dira, osasun arazoak. Momenturik hoberenera ailegatzeko lan handia egin eta kanpoko faktoreak direla medio, maila ez ematea. Hori izan da minga-

rriena, ez lesio larriak izan direlako, baina bai lesio asko. Geratu, berriro hasi eta berriro geratu. Horrela ibili naiz urte askotan eta horrek ahalegin handia eskatzen du.

Euskal Herriaren eta euskarren enbaxadorea ere izan zara.

Ez dakit enbaxadorea... Saiatu naiz niretzako daukadan baloreak besteei ere transmititzen. Saiatu naiz nire herriarekiko eta hizkuntzarekiko daukadan konpromisoaren berri ematen ahal dudana guztietan.

Etorkizunari begira, zer asmoa daukazu? Orain bestelako lanean zabilta. Zure alaba Nahiak bederatzi hilabete ditu...

Orain berarekin nago buru-belarri. Bere lehen hilabeteak ez nituen asko gozatu, oraindik bizikletan nenbilelako. Baina egoera honi esker, orain aukera hori daukat eta saiatuko naiz ahal dudana guztia berarekin gozatzeko. Oso pozgarria da, txirrindularia izaten segituko banu, ez nuen izango aukera hau.

Bestalde, bai lan arloan eta bai kirol arloan lanean segituko dudala garbi daukat. Profesionala izan aurretik irakaskuntzan aritu nintzen eta ez dakit orain bide hori jorratuko dudana edo txirrindularitzarekin lotutako besteren bat. Baina presarik ez daukat. Momentuan oso gustura nago umearekin eta denbora bat berarekin egon nahi dut. Eta zeozer interesgarria suertatzen bada, helduko diot.



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



Sabrina PATO

Jogurt naturala

OSAGIAK

Litro bat behi esne ekologiko
Jogurt natural ekologiko bat
Kristalezko zortzi potetxo
Kartoizko zapata kutxa eta mantatxoa

Era desberdinak daude jogurta egiteko. Guk bi aipatuko ditugu:

LEHENENGOA

1. Zapata kutxa mantatxoarekin forratu.
2. Esnea berotu 50 gradura (kontuz, temperatura neur-tu nahian termometroak eztanda egin dezake-eta!). Ondoren, jogurta nahastu eta potetxotan banatu.
3. Potetxoak kutxan sartu eta mantatxoarekin ongi estali beroa gal ez dezaten. Geldi utzi epeletan zortzi orduz.
4. Kutxa zabaldu eta, hara, jogurtak jateko prest daude!

BIGARRENA (Labea erabili ondoren, bere beroa aprobeztatuz)

1. Esnea eta jogurta nahastu eta potetxotan banatu.
2. Potetxoak erretilu batean ipini eta erretiluari ur apur bat gehitu, Maria bainutan.
3. Erretilua labe beroan sartu. Zortzi ordu pasa eta gero jateko prest daude.

Egiten diren jogurtetatik bat gorde beharra dago hurrengoan berriz ere gehiago egin ahal izateko.

Jogurt naturala, naturalena

Elikagai zaharra da jogurta. K.a. III. mendekoa izan daitekeela uste da. Garai hartan ez zuten jogurta propio ekoizten; badi-rudi hasieran kasualitatez lor-tzen zutela, esne gordailu gisa-ra erabiltzen zituzten larruetan bakterioak izaten ziren-eta. Duela mende bat baino gehiago iritsi zen gurera. Lehenengoak bo-tiketan saltzen zituzten, urdaileko arazoak sendatzeko jogurta aproposa zela-eta.

Esnearen hartziduraren ondorioz sor-tzen da jogurta. *Lactobacillus bulgaricus* eta *Streptococcus thermophilus* dira es-ne hartitzen duten bakterioak. 45 gradu-ko tenperatura behar izaten da jogurta sor-tzeko. Horrela, esnearen azukrea den laktosa azido laktiko bihurtzen da. Laktosa-ri intolerantzia dioten lagunek errazago di-

geritzen dituzte jogurtak, laktosa gehiena azido laktiko bihurtuta baitago. Bestalde, hartzidura prozesuko entzimen bitartez, kaseina proteinak puskatu egiten dira, eta, ondorioz, horien digestioa ere erraztu egi-ten da. Jogurta aurreidigeritutako produk-tua da. Beraz, esnea baino hobeto digerit-zen da. Jogurtek dituzten bakterioei esker, sistema immunologikoa indartu egiten da; gainera, beherakoa izaten dugunean, hes-teetako flora indarberritzen dute jogurta-ren bakterio horiek berberak.

Haurrek gustukoak dituzte oso, baina zai-la izaten da jogurt egokia aukeratzea. Egun, eskaintza zabala dugu: zaporedunak, fruta-dunak, gantz gutxidunak, azukredunak eta azukre gabeak, edatekoak, bifidusak, kal-tzioan aberastuak, grekoak, gaingabetuak... Zerrendak luze jo dezake. Horiek guztiek,

esnea eta aurretik aipatutako bakterioez gain, beste osagai batzuk ere izaten dituzte. Horien artean egon daitezkeen zenbait onuragarriak dira (bakterioak kasu); beste batzuk, aldiz, ez horrenbeste: askotan, gehi-garriak erabiltzen dira “jogurtei” fruta zapo-rea eta kolorea emateko, fruta bera baliatu beharrean. Horixe ez dago onartua ekoiz-pen ekologikoan: marrubizko jogurtak ma-rrubia izan behar du ezinbestean. Beste al-de batetik, merkatuan dauden jogurt askok azukre piloa dute, azidotasuna leuntzeko. Hori ere ez da batere osasungarria.

Aukeraketa egiterako orduan, azukrerik gabeko jogurt natural ekologikoak gomen-datzea egokiena da, horiek baitira naturale-nak. Gainera, jogurt horiei guk eman die-zaiekegu zaporea, fruta zatitxoak edo marmeladak gehituz, esaterako. Edatekoak

nahi baditugu, esne apur bat gehituz lortu-ko ditugu. Baina aukeraketaz kanpo utzi be-harko genituzke mantenugai ezberdinetan aberatsak direnak (kaltzioa, adibidez). Elik-a-dura-ohitura osasungarriak baditugu, be-harrezkoak diren mantenugai guztiak lor-tuko ditugu, naturalki, gainera.

Etxean jogurta egitea oso erraza da, hau-rrek egin dezakete gainera: magia egitea be-zalakoa da! Jogurtera erabil daiteke, baina tramankulu hori izan gabe ere posible da etxean egitea, modu erraz batean gainera. Etxean egiten diren jogurtak hozkailuan gorde behar dira eta ez da komeni luzaroan gordetzea, bakterio magiko lagungarriek lan egiteari uzten diote eta.

Sabrina Pato
Sukaldaria eta elikadura hezitzailea

Primerakoak

Mirari Martiarena

Esaten da bizitzako gauza guztiak norbere esku daudela. Gure esku dauden erabaki txikiek baldintzatzen dutela etorkizuna. Bai, batzuetan horrela izan daiteke, baina beste batzuetan gure ahaleginak ez dira nahikoak izaten. Pasatako urak errotarik mugitzen ez duenean bezala, alferrik izaten dira, “banu”, “balego” eta “balitz” hitzak erabiltzea.

Oiartzungo futboleko Lehen Mailako taldea liga amaierara iritsi da indar guztiak emanda. Jaitsiera postuetako mamuari ihes egin nahian ibili da. Itzal luzea izaki, denboraldiko azken partiduan ere azaldu egingo da. Bihar 12:00etan Karla Lekuona futbol zelaian Oiartzunen eta Zaragozaren arteko partidua jokatuko

da. Oiartzunek garaipena lortuta ere beste partidu bati begira egon beharko du, ez baitago Oiartzunen esku bakarrik Lehen Mailan mantentzea; Betisen esku ere badago. Izan ere, andaluziarrek Albacete mendean hartuz gero, Oiartzunek hirugarren denboraldia egingo luke Lehen Mailan.

Futbolari profesionalak dira, hori telebistak esan baino lehen ere bagenekien arren. Inor gutxik daki, ordea, zein ordutan entrenatzen duten, edo, lesioren bat, giharretako gainkargaren bat edo eskuinteko hankako behatz potoloko azkazala hautsi badute, medikuak zer esan duen. Ehun euro jasotzen ditu jokalaria bakoi-tzak hilean gasolina ordaintzeko, entrenamenduetako joan-etorrietarako.

Oiartzunek bere esku dagoen guztia egingo du Lehen Mailan mantentzeko. Beste behin ere zaleok han izango gara bultzada hori emateko eta Bigarren Mailaren mamua uxatzeko (joan dadila Albacetekoekin).

Primerako jokalaria eta lagun taldea dira oiartzuarrak. Ez jokalaria eta entrenatzaileak bakarrik, harmailetan eta zelaia-aren bueltan egoten diren zale guztiak ere bai. Ligako talde gutxik dituzte horrelako zale sutsuak, “Oiartzun, gogor erantzun!” leloa zelaiz zelaiz zabaldu dutenak.

Biharko proposamen bat: zergatik ez gara zelaia 11:30ean joaten jokalaria be-roketa ariketak egiten ari diren bitartean animatzen hasteko? •

«Low cost» haragia

Koldo Sagasti

Pasa den maiatzaren 7an gertatu zen. Fabiana Goicoechea Caracaseko hiribide nagusian zebilen paseoan. 16 urte baino ez zituen, zertarako den bizitza jakitera iritsi gabea zen oraindik. Erregimeneko soldadu bati ez zitzaion, nonbait, nerabearen aurpegiera, jarrera edota begirada desafiatzaila gustatu. Mehatxagarritzat hartu zuen. Ikararen ikaraz fusilaren kolpekarriari eragin eta bi tiro jaurti zizkion. Adingabearen zerraldia azken hatsetan zetzala ordu horietan hiribidea lepo betetzen zuen jendea saiatu zen zaurituari laguntzen, alferrik, soldaduak piper-gasa jaurtiz oldartu baitzitzaizkion jendetza-

ri. Eta hortxe utzi zuten botata neskatoa apurka-apurka odolustu zedin. Gerora, armadak, borreroaren erantzukizuna zuritzearren, neskatilak labana batekin hamar soldaduri eraso egin nahi izan ziela argudiatuko zuen prentsa-ohar batean. Eta horrelaxe amaitu zen afera. Ez zen inongo ikerketarik ireki; ez inolako erantzulerik bilatu; gertaera ez zen, antza, prentsako albiste labur bat ere betetzeko adinakoa izan.

Baina zergatik egin ote dute ezikusia-rena mundu osoko hedabideek Fabianaren erailketaren aurrean? Akaso Fabiana ez zutelako Caracaseko hiribide nagusian exekutatu, Damascus Atean baizik, Jeru-

salemeko alde zaharrerako sarreretako batean. Eta erregimeneko soldaduek akabatu zuten, bai, baina ez bi tiro jaurtita, hogeit baizik. Eta hilzorian zen neskatoa lagundu nahi izan zutenak piper-gasaz sakabanatu zituzten zauritua odolustu zedin. Eta gerora, soldaduei labana batekin eraso egin nahi izana leporatu zioten hildakoari. Eta Fabianak 16 urte zituen, bai, baina ez zen Fabiana, Fatima Hajiji baizik, eta palestinarra zen. Eta neskatila palestinar baten debaldeko erailketa ohi-koegia da, egunerokoegia prentsako albiste bilakatzeko. Palestinarren haragia oso merke saltzen da nazioarteko merkatuetan. *Low cost* haragia da. •

infraganti

KATALIN ANTIXIA

Esloveniatik oso gertu dagoen Italiako Trieste hirian ohartu zen Katalin Antxia (Aretxabaleta, 1988) diseinatzailea bertakoen gaitasun harrigarriaz arropa bidez komunikatzeko. Soinean zeramaten arropak bertako historiaren arrastoa zuen, eta herritarren gogo-aldartearen igortzen zuen. Orduan hasi zen ohartzen janzkerarena komunikazio oinarri indartsua dela, eta janzten den horrekin ere politika egin daitekeela, besteak beste. Diseinatzailea da, bai, diseinatzaile aktibista esan liteke.

EHU-UPVko Leioako campusean Publizitatea eta Harreman Publikoak amaituta, eta Multimedia Komunikazioan masterra egin ostean, Donostiako Tabakalera eta Artelekura heldu zen praktikak egitera. Hori guztia batu zitzaion Triestek helarazitako sentsazio haiei, eta komunikazioaren eta modaren bideak uztartzeko aukera ikusi zuen. AEG eskolan bi urteko ikasketak egin zituen modan profesionalizatzeke, patroigintzan eta josketan sakonduz. Osagai guztiak prest zeuden ondoren erditu zuen The Modubat marka abiarazteko. Bitartean, eta geroztik, Ziburu, Arcachon, Bordele eta Poitiers izan ditu bizileku.

Ematen dituen erantzunak asmoz eta ekintzaz josten ditu Antxiak, ideiak oso argi ditu, nola diseinatu, nola ekoitzi. Pentsatzen duenarekin koherente izatea asko baloratzen duela sumatzen da, hala igartzen da eskaintzen dituen baieztapen eta adierazpenen bitartez.

«Modak berak, industriak, baditu gustatzen ez zaizkidan gauza asko, adibidez, lan baldintzak zenbait ekoizpen prozesutan, giza eskubideak urratzen dituen sektore handienetakoa da-eta. Baina sinisten dut modaren aurpegi atseginean ere», dio. Batez ere modaren «irisgarritasuna» gustatzen zaio, jende gaztea erakartzeko eta haien interesa pizteko duen gaitasuna, «edozein euskarrik lortzen ez duena». Bere ustez, irisgarritasun hori balia daiteke eredu jasangarriak helarazteko, adibidez.

Komunikazioa eta moda uztartu ditu The Modubat proiektuaren bidez. Moda jasangarria eta etikoa, zentzuz ekoitzi eta inpaktu sozial positiboa eragin. Bestela ez du logikarik, Katalin Antxia diseinatzailearen ustez. Oihal naturalak erabiltzen ditu eta bazterketa arriskuan dauden emakumeek josten dizkiote jantzi minimalistak.



Katalin Antxia aretxabaletarra, berak diseinatutako soinekoa jantzita.

Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Egiten duen diseinua oso minimalista da, nahita egindakoa. Leku batetik bestera ibili izanak ere izan du eragina. «Hiri batera mugitzean, bizileku berri batera, berehala integratua sentitzekeko interesa izaten da, ezta? Berdinen artean sentitzeko gogo horrek eramaten nau modu automatikoan minimalismora. Uste dut apaingarriak kentzen hasten garenean jartzen garela berdinen artean. Nire diseinuek esfortzu edo ahalegin bat eskatzen dute. Jantzi zaitezke alkandora minimalista batekin apaingarri askorik ez duena eta diseinu horrek bultzatzen zaitu *look*-a osatzera, eta, horretarako, nortasuna bat behar duzu, irribarre bat behar duzu, ahalegin bat behar duzu, eta ahalegin hori zure baitan dago. Diseinua hortik lantzea interesatzen zait, esfortzu pertsonal bat eskatuta», azaltzen du.

Gustuko du «ia ezer gabe», praka eta alkandora soilez jantzita asetzea, sentitzea ez dela ezer gehiago behar. «Batuetan badirudi mila istorio jarri behar dituzula ezinbestean kristoren nortasuna duzula sentitzeko kalera ateratzeko... Bada, nik justu alderantziz ulertzen dut hori, gero eta gutxiago hobe; gure buruarengan segurtasun gehiago dugula erakusten du».

MODA GELDOA

Uda ostean, irailean, kaleratuko du bere bilduma berria, denboraldi batean atera duen lehena, izan ere, Antxiaren erritmoak ez dira industriarenak, beste batzuk dira, bereak, propioak. *Slow fashion* edo “moda geldoa” delakoarekin bat egiten du, justu industria eta kate handiek egiten dutenaren aurkakoa. «Bizitza filosofia bat da. Masan ekoizten denak, bi astetik behin bilduma berri bat ateratzeko, ez du zentzurik. *Slow fashion*-a horri guztiari frenoa jartzera etorri da, nolabait etengabe ekoizteko logika ez hori salatzeke».

Zaila da, ordea, joera eta denboraldiei jaramonik ez egitea, zurrumbilo basati horretatik aldentzea. Baina eredu ezberdinak posible dira. Adibidez, etxe eza-gun jakin batzuek badituzte eu-



Instagram eta Facebook sare sozialen zein web bidez izan daiteke The Modubat proiektuaren berri. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

ren produktu izarrak, beti berdin ekoizten eta saltzen dituztenak, adibidez, Dr. Martens oinetakoak, Levi's galtza bakero ospetsuak edota Lacoste polo ezagunak.

Moda geldoaren baitan, aldi berean, "moda jasangarria" kontzeptua ere jaio da, ekoizpen erritmoari erreparatu soilik ez, garapena bera ere kontuan hartzen duena: alde soziala, ekonomikoa eta ingurugiroa uztartu eta zaintzen ditu, Antxiak azaltzen duenez. Eta hortxe sartzen da jokoan The Modubat.

Jantziak Alacanteko Elx hiriko formakuntza zentro bateko tailer batean josten dizkio mimo handiz bazterketa arriskuan den emakume talde batek. Asko kartzelan izandakoak dira, beste batzuk langabezian daude... Hala, «oso bizitza ezberdinak» nahasten dira tailerrean. «Konturatzeko zara bertan egoteko ez dela beste munduko ezer gertatu behar, adibidez, bi urte langabezian egonda programa horretan parte har dezakezu, beraz, edonor izan daiteke tailerrean».

Formakuntza zentroak bi urtez modaren alorrean hezten dituen ehungintzan lan egin ahal izateko: patroigintza eta mozketak, plantxa, joskintza... Amaitzean batzuk enpresetara doaz la-

Antxiaren jantziak oso finak dira. Gustuko du «ia ezer gabe», praka eta alkandora soilez jantzita, asetzea. Gure buruan segurtasuna dugula erakusten du horrek bere ustez

«Zaborra sortzen ari gara, eta horrekin oso kritikoak izan beharko ginateke. Finean, kotoi ekologikoz betetako zabortegi bat horixe da, zabortegi bat. Ezin da zentzurik gabe ekoitzi»

nera eta beste batzuk zentroan bertan gelditzen dira. Tranpolina izateaz gainera, bazterketa saihesteko lagungarria da. Eta hor jartzen du azpimarra aretxabaletarrak, sortzen den horrek inpaktu positiboa izatearen garrantzian alegia. Munduak martxa zuzena har dezan ezinbestekoa, bere ustez.

Norabide horretan kokatzen dira ere jantziak josteko erabilitako ehunak. Jantziak modu etikoan European ekoizten dituela iragartzen du Antxiak Themo-dubat.com atarian, baina, horrez gain, oihal denak naturalak dira. Orain arte kotoi ekologikoak erabili izan ditu, baina, Antxiak, beste diseinatzaile txiki askok bezala, arazo handiak ditu azkenaldian, kate handiak ere

batu direlako «moda berdearen» olatura, eta jantziei kotoi ekologikoaren zigilua jartzeko tasak izugarri garestitu direlako. Handien eraginez, txikiek ezin dute pisu ekonomiko hori beren gain hartu. «H&M eta Zara bezalako kate handiek, adibidez, 2030erako egiten duten moda jasangarria izango dela iragarri dute. Horrek lausotu egiten du gurekiko ezberdintasuna erabilitako materialei dagokionez, nahiz ondoren haien ekoizpen moduek gurearekin zerikusirik ez izan», azaldu du.

Horren aurrean, txikiek «informazioaren kultura» sortzea proposatzen du. Hau da, jendeak galde dezala erosten duen bakoitzean non, nola eta zerekin ekoitzi den jantzi hau edo bes-

tea. Kate handi batek eraman dezake kotoi organikoaren zigilua, baina zer gertatzen da inpaktu sozialarekin?». Enpresa handiak, antza, «zer ez duten egiten» esaten hasi dira, baina bere iritziz argigarriagoa da sortzen diren ondorio positiboak zeintzuk diren azaltzea. Edozein kasutan, *green washing* hutsa da bere ustez, hau da, enpresok beren buruak zurrizko erabiltzen dituzten estrategiak.

Ekoizteko modua bera militantzia dela dio, ideologia bat. «Zaborra sortzen ari gara, eta horrekin oso kritikoak izan beharko ginateke. Moda jasangarria egiten duela dioen etxe batek ezin du zentzurik gabe ekoitzi. Azken finean, kotoi ekologikoz betetako zabortegi bat horixe delako, zabortegi bat. Horregatik –erantsi du–, modaren gaur egungo ereduari buelta ematen ez bazaio, ez gara moda jasangarria egiten ariko».

Koherentzia eskatzen du pentsatzen den moduan kontsumitzeak. Ardura hori ez da normalean modan jaiotzen, elikaduran edo kosmetikan baizik, eta gero hedatzen da beste arloetara. Eta horretan aletxoa jartzen du The Modubat markak. •

Oihane Larretxea de la Granja



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
EHUko irakaslea

Osasun zerbitzu publikoaren defentsa, hedabideetan

Urte batzuk atzerrian eman eta gero, Osakidetza bueltatu naiz. Osasun zerbitzu publikoaz zerbait aipatu beharko banu, bertako langileen tratua onartu litzateke. Gertukoa, gozoa, euskalduna... nahiz eta Osakidetza gero eta zerbitzu gutxiago eskaintzeko baliabideak dituen.

• «Los sindicatos no aceptan más recortes en Osakidetza» (GARA, 2017/02/22).

• «Anuncian movilizaciones contra la privatización en Osakidetza: Los sindicatos se unen e instan a Osakidetza a modificar su 'apuesta estratégica por la privatización' y anuncian movilizaciones el 21 de febrero» (Cadena Ser, 2017/02/08).

Osakidetza galdu dituen langileen ondorioz, gaixoentzako arreta nabarmen kaltetu da:

• «La falta de sustituciones satura los centros de salud de Osakidetza en Navidad» (Gasteizhoy.com, 2016/12/26).

• «Llega el verano y... 1.000 camas menos disponibles en Osakidetza» (Eldiarrio.es, 2016/07/11).

EAEko Osasun sailburuaren adierazpenek, baina, arduragabekeria erakutsi dute:

• «Darpon: 'Gaixoei ez zaie asistentziarik ukatuko ohe faltagatik'. 'Georgie Dann gogoan duzu? Ohe murrizketarena da aurtengo udako kanta. Uda ostean galdetzen badidazu, gaixo bat bera ere asistentzia gabe utzi ez dugula esango dizut', adierazi du sailburuak» (Eitb.eus, 2014/07/09).

• «Protestak hauteskunde sindikalen gatik egin dituztela uste du Darponek: Osasun sailburuaren esanetan, Osakidetza 160 liberatu sindikal baino gehiago daude, eta protesta horiek bakarrik egin da ere, 'ospitalearen parean manifestazioa dagoela emango du'» (Eitb.eus, 2013/04/23).

Murrizketek, batez ere, emakumeoi eragin digute, urteroko ginekologo zerbitzua kendu digutelako:

• «Denuncian los recortes de Lakua en salud para las mujeres: Exigieron que se realicen revisiones ginecológicas preventivas, periódicas y completas, que se garantice la anticoncepción y la interrupción voluntaria del embarazo y que se ofrezca información sobre sexualidad y menopausia» (GARA, 2013/05/29).

Informazio horren ordez, politikarrien asmoen berri eman digute heda-

bideek, bete egin dituzten egiaztatu barik:

• «Salud hará cribados de cáncer de cérvix a todas las mujeres entre 21 y 65 años: También desarrollará un plan contra la obesidad infantil» ("Deia", 2017/01/24).

• «Un test alargará la visita al ginecólogo: Osakidetza implementará un método para la detección precoz del cáncer de cuello de útero» ("Deia", 2016/05/15).

Asmo horiek zabaldu zirenean, ez ziguten azaldu minbiziaren aurkako terapiarako Osakidetza tresneria kinka larrian zegoela:

• «El fundador y máximo accionista del grupo Inditex dona 14,7 millones a la sanidad vasca: Osakidetza comprará cinco aceleradores de radioterapia y un mamógrafo con la donación de Amancio Ortega» ("Deia", 2017/04/17).

Inditex-en buruak Osakidetza laguntzeko egin duen ahalegina neurtzeko, haren soldata jakin behar dugu:

• «Amancio Ortega gana más de 2,5 millones de euros al día en dividendos» ("El Correo", 2015/03/19).

Hortaz, Ortegaren esfortzu ekonomikoa hilabete bateko soldataren bostena izan da. Hau da, 1.000 euroko soldata duenak bizitzan behin 200 euro ematea izan da, ginekologo pribatuan (Osakidetza egiteari utzi dion) urteroko errebi-sioak balio dezakeena. Ortegaren esfortzu nimitio horrek hedabideen txaloak merezi ditu?

Osakidetza gure zergekin eusten dio. Zerga horien kudeaketarekin osasun arreta babes dezake Jaurlaritzak, zerbitzu publikoa lehentasunen artean balego.

• «EH Bildu pide la creación de 1.200 empleos en Sanidad y Educación para apoyar los Presupuestos: Exige, como Podemos, que la RGI se eleve un 8% dentro de una batería de medidas que superan los 164 millones de euros» ("El Correo", 2017/03/13).

• «Lakua ha adelantado ya más de mil millones al TAV que Madrid no paga» (GARA, 2016/07/08).

Osakidetza langileen mobilizazioek gure osasun zerbitzu publikoa defendatzen dute. Hedabideek, zabaltzen dituzten albisteekin eta buruzagien adierazpenekin, Osakidetza babesten edo pribatizatzen laguntzen dute. •



Langileen mobilizazioek gure osasun zerbitzu publikoa defendatzen dute.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



MARI KARMEN MITXELENA FUNTSA

PINTAKETA FAXISTAK IKASTOLAN, 1968AN

Frankismoan, ikastolak klandestinoak ziren. Lehenbiziko andereñoetako bat Elbira Zipitria zumaiarra izan zen. Bazuen eskarmen-tua hezkuntzan, 30eko hamarkadan, gerra baino lehen, eskolak eman baitzituen orduko ikastoletan. 1968an gaurko Orixe Ikastola sortu zen, eta Jose Elgarresta Iturbe parrokoak utzitako lokal batzuk izan ziren haren lehenbiziko egoitza, 1970 arte baimenik ga-be jardun bazuen ere. Lehen urteetako andereñoak, Zipitriarekin batera, Mari Karmen Mitxelena, Koro Aldanondo eta Miren Terese Aleman izan ziren. 1968ko goiz batean, Mari Karmen Mitxelenak, lokala zabaltzean, pintaketa anonimo mehatxari batzuk aurkitu zituen ikasgeletako arbeletan. Argazkian, Elbira Zipitria eta Begoña Goia, hori ere andereñoa, arbel haietako baten aldamenean.

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua

